



ataria

Guztientzat bada lekurik errepidean

Kultura

Igor Arostegi eta

Xabier Peña tolosarrak Euskadiko

Orkestrako perkusio jotzaileak

2018-07-13

906. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



Sariduna



Atarikideentzat **produktu**
sorta dugu

TOLOSALDEKO
ATARIA-REN
PRODUKTU SORTA

• Maite Aizpuru (Ibarra)

Hemen zure iragarkia joan daiteke

publi@ataria.eus
661678818

VILLABONA

UZTAILAREN 19tik - 22ra

ORDUTEGIA:
18,00 etatik
1:00 etara

Txermineko ikastolan

ANTOLATZAILEA
LAGUNTZAILEA
VILLABONAKO UDALA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTUAK

Jogurtak eta postreak
Gaztak
Izozkiak
Haragiak
Ondu xerratuak
Hestebeteak

Mahala Baserri - Leaburu (Gipuzkoa) - 943 670 724 - mahalanaturala.com

Zeliakoentzat gai dira gure produktu guztiak

Bizi ala grabatu

Ume nintzela sortu eta urteak pasata galdu ez dudan ohitura da sanferminetako entzierroak ikustearena. Akordatzan naiz, eskolatik oporrak hartu eta lo egiteko aukera izanagatik, aitari eskatzen niola goizero esnatzeko eta mahaiaren gainean jarritako gosariaren berotan ikusten nituela zezenak zalapartan Estafeta kalean behera.

Asteburuan jaiki eta telebistan ikusi ditut aurten eta astean zehar berriz lanera bidean irratian entzun. Bai, ez da gauza bera, baina urteen poderioz ibilbidea ondo baino hobeto ezagutzen dut eta ez ikusiagatik kale eta bazter bakoitzean dauden dendez ere akordatzeko gauza naizela uste dut. Gainera, aitortu behar dut: telebistan gaur egun ez naiz gai entzierroa zuzenean ikusteko eta piper eta txorizo iragarkien ostean botatzen duten errepikapenaz gozatzen dut gehienetan, harrapaketa larrik ez dela gertatu jakin eta lasai ederrean. Ondoren,

Izan ere, zenbat eta zenbat une ez ote gara galtzen ari bizitzea baino ia grabatzea nahiago dugun sasoi honetan



MAIDER EIZMENDI
KAZETARIA

beste behin errepikatzen dute, eta ondoren, beste bitan edo hirutan. Nahi izanez gero, korrika saio bakoitza buruz ikasita ere amaitu dezakezu telebista saioa. Errepikapenek ibilbidearen bazterretan biltzen den jendeari begira jartzeko ere balio izaten dute –sarritan entzierroak eurek baino irudi deigarriagoak eskaintzen dituzte– eta haiei begira konturatu naiz ia lepoko zapi gorriak adina mugikor ikus daitezkeela ikusleen artean.

Agian, erraza da eta nik ez dut asmatu, baina nire esperientziatik diot entzierroa lehen lerroan ikusi ahal izateko denboraz joan behar izaten dela lekua hartzera; lo egiteko edota *parrandari* azken minutuak emateko hobeak diren ordu horietan zain egon behar izaten dela, entzierroaren bazterretan jarrita dauden itxiturak ez direla batera eroak... eta hori dena zertarako,

eta ziztu bizian pasatzen diren zezenen arnasa gertu-gertu entzun eta sentitu beharrean, haiek mugikorrak grabatu eta irudiak etxera eramateko. Total, nahi adina alditan ikus daitezke eta telebistan! Entzierroan deitu dit atentzioa jendeak esku artean hartutako mugikor kopuruak, baina gauza bera esan genezake ospakizun eta jai gehien-tsuenen inguruan besteak beste. Izan ere, zenbat eta zenbat une ez ote gara galtzen ari bizitzea baino ia grabatzea nahiago dugun sasoi honetan.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldezkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Aitzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Azaleko irudia:
Mikel Iraola

ELKARTASUNAK BLAITUTA

Joan den asteburuan izan zen Marea Urdina zeharkaldia, autismoaren alde; Tolosaldeak ere egin zuen ekarpena, eta Andoni Matxain aritu da sare hori guztia osatzen.

Izzea Urkizu Arsuaga

Gipuzkoako kostaldean 64 kilometroko zeharkaldia igerian osatzea. Hori zen, Marea Urdinaren helburua, autismoa gizarteratzearen alde, joan den asteburuan.

Igerian batzuk, miliak erosiz beste askok, ehunka gipuzkoarrek bat egin

zuten, elkartasunak blaituta, eta Tolosaldea ere batu zen lehen Marea Urdin horretara.

Andoni Matxain ordiziarra izan da errudunetako bat. Tolosan bizi da, Alliri auzoan, eta zendutako izeba baten bidetik sortu zitzaion egitasmoan laguntzeko gogo: «Nire izebak bazuen autismoa zuen iloba bat, eta nolabait horrek piztu zidan gogo», dio.

Horrela, Irizar enpresaren babesle-tza eskuratzearekin batera, bere bizi-lagunekin hasi zen: «Korrikak egiten duen moduan, aukera zegoen itsas miliak erosi eta Marea Urdinari laguntza ekonomikoa emateko. Azkenean, bi milia erosi genituen hamalau pertsonaren artean».

Tolosaldea IKTko igerilarien nahiz Tolosaldeko Triatlói Taldeko kideen babesarekin lortu zuen Matxainek, zeharkaldirako, izan ere, antolakuntzak gonbidatutako igerilari entzutetsuekin batera, beste ehunka igerilarik parte hartu zuten.

Andoni Matxain bera ere parte hartzekoa zen, baina, azken orduan Gasteizko triatlói dortsala lortu, eta bertan parte hartzea erabaki zuen, helmuga Marea Urdineko banderatoarekin zeharkatuz.

Datorren urtean ere, autismoaren aldeko olatua handitzeko lanean ariko dela dio Andoni Matxainek, eta horretarako eskualdeko herritarren elkartasuna ezinbestekoa izango zaio.



Ezkerrean, Alliri auzoko bizilagunak; eskuinean, Andoni Matxain Gasteizko triatlói helmugara iristen. ATARIA

 tolosaldeko
ataria

 ataria
irratia

 ataria
internet

 ataria
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Lan orduak murriztea eta soldata igotzea lortu dute, urbanoko langileentzat; gainerakoek greban jarraitzen dute. I. URKIZU ARSUAGA

Amaitu da Hiribuseko gatazka

Akordio bat lortu du, ELAK, Tolosaldea Udalarekin eta Cuadrarekin; asteleheneetik aurrera ohiko zerbitzuei ekingo diete

Itzea Urkizu Arsuaga

Sei hilabeteko grebaren tunelera argi izpi bat sartu da, Tolosaldea Buseko langileen bidean: Tolosaldea Udalarekin eta Cuadra enpresarekin negoziatu eta gero, ELA sindikatuak akordio bat iragarri du, Tolosalde Hiribuseko langilearen postua mantendu, eta zerbitzua normaltasunez martxan jartzeko.

Bi urterako akordioa izango da, eta urbanoko langileei 40 orduz murriztuko diete urteko lanaldia; orain arte, urtean 1.800 orduko lanaldia zuten. Soldatari dagokionez, Tolosalde Hiribuseko langileek %8ko igoera izango dute eta, azkenik, lan erreforma hitzarmen horretatik kanpo geratuko da.

Horrenbestez, datorren asteleheneetik aurrera, Tolosalde urbanoa normaltasunez lanean hasiko da. lan gatazka hasi bitarte, bi gidari aritzen ziren Hiribusean; bati kontratua amaitu zitzaion, eta Tolosaldea Buseko gidari

bakarraren egoera izan da, auzitan, krisi horretan. Modu horretan, Cuadrarekin eta udalarekin eskuratutako hitzarmenak langile horri eragingo dio, eta subrogazio kontratu bidez hasiko da, berriro, urbanoan.

Bide beretik, Tolosalde Udalak, urbanoan hiru langile – 2 lanaldi osoan eta 1 erdian – aritzeko beharra zehaztu zuen plegu berrietan eta, beraz, orain arteko gidariarekin batera ariko dira, aurrerantzean, Cuadrak kontratatu dituen bi langile berri.

Aurrekariaren errenkada

2017 amaieran sortu zen krisi egoera, Tolosaldea Buseko langileak enpresa hitzarmen eske hasi, eta enpresaburuek negoziatzeko asmorik ez zutelaz azaldu zutenean. Gerora, hilabetetan luzatu da lan gatazka, eta Tolosalde urbanoari eta eskualdeko lineako autobusari eragin dio.

Bide horretan, maiatza inguruan, bazirudien Tolosalde Hiribusaren auzia konpontzera zihoala: Tolosalde Udalak plegu berriak argitaratu zituen, urbanoaren zerbitzua berriro esleitzeko, eta enpresa bakarra aurkeztu zen lehiaketara. Cuadra. Udalak zerbitzuaren ardura Cuadrari esleitu, eta

urbanoko langilea –Tolosaldea Bus-ekoa– subrogazio kontratu bidez Cuadrari aritzeko bidez. Ordea, subrogatuta egonagatik, grebarako eskubidea baliatu nahi izan zuen langileak, eta oztopoak sortu ziren, berriz, negoziazio egoki bat lortzeko. Sanjoanen aurretik, horrela, Cuadrak Hiribus zerbitzua eskaintzeko akordiorik ez sinatzea erabaki zuen, eta Tolosalde Udalak behin-behinean hartu zuen, urbanoaren ardura, alde guztiak «eseri eta negoziatzera» deituz.

Tolosalde garraio publikoaren auzia egonkortu da, eta ELA sindikatuak gogora ekarri nahi izan du, horrelako gatazketan «administrazioak erantzukizun zuzena» duela: «Argi geratu da, borondate politikoa dagoenean, jendearen lan baldintzak hobetu daitezkeela».

Dena den, foru aldundiko autobus lineako auzia ere gogora ekarri nahi izan dute, Tolosalde Buseko gainerako langileek greban jarraituko baitute: «Sinestezina da erakunde publiko batek gure aldarrikapenei horrela uko egitea». Uztailearen 17an elkarretaratzea izango da, Donostiako Gipuzkoa plazan, 11:30ean, eta eskualdeko herritarrek deitu dituzte bertaratza.

EREINDAKO UZTA JASOTZEN HASTEKO ORDUA

Iruran sortze bidean den elkarteak ekimenak antolatu ditu gaur, eta bihar, Gazte Asanbladak III. Gazte Eguna ospatuko du. Herriari bizia emateko ahaleginean ari dira belaunaldi ezberdinetako herritarrak elkarrekin.

Jon Miranda

I ruran elkarte bat sortzeko asmotan dira aisialdi eremuan eragiteko. Herri giroa sustatu nahi dute eta herritarren arteko harremanak sendotu. «Mantso doa prozesua baino sendo», elkartearen sortzeko bidean den talde sustatzaileko kide Gorka Muruaren hitzetan. Hilabete hauetan herriko eragile ezberdinekin bildu dira iritziak trukatu eta sortuko den elkartearen egitura zehazteko. Tartean izan dira Irurako Gazte Asanbladako kideak eta haiek proposatuta antolatu dute asteburu honetako egitarau bateratua: gaur el-

karte berriaren eguna ospatuko dute, eta bihar, III. Gazte Eguna.

Uzta Giro deitu diote egitarauari, «hilabeteotan ereindakoa fruituak jasotzeko ordua baita», Muruaren esanetan. Baina ez horregatik bakarrik. Irurara iristeko dago uztarik mardulena. Urte gutxitan hazkunde azkarra izan du herriak, eta hortaz, herriko dinamikan barneratuko diren gazte asko egongo da hurrengo urteetan. «Gazte horiek herrian geratzea eta bertako bizitzan parte hartzea da gure asmoa», esan du Muruak.

Iritzi berekoak dira Naroa Lasa eta Julen Azpeztetgia gazteak. 21 urte dituzte eta euren belaunaldiko bedera-

tzi gazte ibiltzen dira gazte asanbladan. «Azken urteotan, berriz, urte berean 30 ume inguru jaio dira eta horrek esan nahi du gazte asko datozela atzetik», dio Apeztegiak.

Gazteak protagonista

Asmo horrekin, duela bi urte Gazte Eguna antolatu eta herrian geratzea erabaki zutela aipatu du Lasak: «Lehenago, herritik kanpora joaten ginen eta irteerak egiten genituen toki diferenteetara. Pentsatu genuen gazte berriak erakarri eta herri giroa sustatu nahi bagenuen, herrian bertan antolatu behar genuela eguna». Bihar, hirugarren aldiz egingo dute.

EGITARAUA

UZTAILAK 13, OSTIRALA

Elkarte berriaren eguna

17:30. Jolasak.

19:00. Poteoa.

20:30. Afaria plazan (Platerak eta mahai tresnak norberak eraman beharko ditu).

22:00. Andoni Ollokiegiren kantaldia.

UZTAILAK 14, LARUNBATA

III. Gazte Eguna

09:30. Mendi irteera.

14:00. Gazteen bazkaria.

16:00. Karaokea eta bingoa.

18:30. Poteoa.

21:00. Gazteen afaria.



Sortze bidean den elkarteko kideak eta Irurako Gazte Asanbladakoak gaur-biharretan egingo dituzten ekitaldiak aurkezten. I.M.

Gaszte Eguna izaten da, Irurako Gaszte Asanbladak urtean zehar antolatzen duen ekitaldi nagusienetako bat; bestea Urtezahar egunean antolatzen duten mendi irteera eta hamaiketako izaten dira. Hala ere, kirol eta kultur asteetan, eta noski, herriko festetan ere izaten dute parte hartzea. San Migel jaietako Gaszte Festan egiten dute belaunaldi berriek sarrera gaszte asanbladan, hamalau urte betetzen dituztenean.

Biharko III. Gaszte Egunerako 30 pertsonak eman dute izena dagoeneko eta egitaraua, gaur arratsaldean antolatu diren ekitaldiekin osatuko da. «Aurrez, Aitor Mendiluzeri omenaldia antolatu zuen sortze bidean den elkarrekin, herritarrek egindako eskaerari erantzunez. Gaurkoa ere hari beretik dator, gazteek egindako eskaerari erantzuten dio», esan du Muruak.

Irailtik aurrera jarraituko dute elkartea sortzeko prozesuarekin. Dagoeneko helburuak finkatu dituzte eta elkartearen egitura zehaztu dute. Hiru lan arlo nagusi jorratuko ditu elkarrekin: «Kultura, kirola eta komunitatea deitu dioguna. Azken horretan, elkartasun ekimenak, auzolanak eta belaunaldi ezberdinen arteko transmisioa landuko da». Ikasturte berria hastearrekin batera zerrendatuko dituzte arlo bakoitzeko ekintzak eta urria eta azaroa bitartean borobilduko dute prozesua, elkartearen izena eta logoa aukeratzuz.

Urte honen amaierarako Irurak, beraz, herritarrez osatutako elkarrekin berria izango du eta 2019ko lehen sei hilkorako ekintza sorta prest edukiko du, azken hilabeteetan eraman duten prozesuari amaiera emanez.



EGUZKIAK AZTARNA UTZ DEZAKE LARRUAZALEAN

Atzo, Villabonako Malkar plazan izan ziren Minbiziaren Aurkako Elkarteko kideak. Bi karpeta eta unitate mugikor bat jarri zituzten eta informazio pertsonalizatua eskaintzeaz gainera, doako azaleko proba bat egin zieten gerturatutakoiei. Gaztetxoie eguzkiaren esposizioaren inguruko jolasak proposatu zizkieten. J.M.

Igerilekua jarri dute Trinketeko aparkalekuan

Irura. Uztaillaren 2tik 27ra bitartean, astelehenetik ostiralera egongo da zabalik 16:00etatik 19:00etara. Igerileku handira 2012 eta 2011n jaiotakoek heldu baten laguntzaz sartu beharko dute. Igerileku handiaren edukiera 12 pertsonakoa da eta begiralearen esanei kasu egin behar zaie, txanda erresetatuz.

Memoria historikoaren inguruko hitzaldia gaur

Aduna. Josu Santamaria eta Joanes Karrerak emango dute memoria historikoaren berreskuratze lanen inguruko saioa kultur aretoan. Aduna, Asteasu, Zizurkil eta Larraulgo udalek, Aranzadi zientzia elkarrekin batera antolatu duten auzolandegiarren barruan izango da, 18:00etan. Gero afaria izango da Uztartzan.

Hilberriak eta urteurrenak



Kepa Otaegi Iburguren

Uztaillaren 8an, Stelvion (Italia) hil zen,
48 urte zituela.
-Goian bego-

Ermatzea: Maixol Muguruza; seme-alabak: Nerea eta Aimar; gurasoak: Pedro eta M^a Jesus; ezkon gurasoak: Juan (f) eta Arantxa; anai-arrebak: Josune eta Juantxo; ezkon anai-arrebak: Patxi eta Arantxa, Anne eta Felix, Eli eta Xabier; ilobak: Leire, Eneritz, Oihana, Maialen, Irati, Eneka eta Ibai; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Hileta: BIHAR, larunbata, arratsaldeko SEI ETA ERDIETAN. Azpeitiko Soreasuko Sebastian Deunaren parrokian, gorpua bertan dela. Aldez aurretik mila esker.

AZPEITIA, 2018ko uztaillaren 13a
Helbidea: Garmendi 17-3B.

Oharra: Hilbeila, bihar larunbata 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik hileta ordura arte Azpeitiko Carmona Ehorzketa tanatorioan egongo da.

Kepa Otaegi Iburguren

Uztaillaren 8an hil zen, istripuz

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere geroan*

Azpeitiko Ikastola Ikasberriko guraso,
langile eta ikasleek familiari elkartasuna
adierazi nahi diote une zail honetan

ikastola



AZPEITIA, 2018ko uztaillaren 13an

Tolosaldea bosgarren Gipuzkoako txapelketan

San Juan eta Hondarribiko traineruek irabazi dute bandera; eskualdeko arraunlarien ordezkartza zabal izan da

Asier Imaz

Gipuzkoako Traineru Txapelketa asteazkenean jokatu zen Mutri-kun. Tolosaldea bosgarren izan zen erlojupekoan, neskek horrela egin baitzuten arraun. Bederatzi traineruk hartu zuten parte emakumeen txapelketan. Lehen txanda Tolosaldeak irabazi zuen, Hernani eta Lapurdi erraz gaindituz 12.10-eko denborarekin. Bigarren txandako Hibaika ere gainditzea lortu zuten eskualdekoek.

Txanda nagusian, San Juan eta Orioren arteko lehia ikusgarria izan zen. Lehen luzean Batelerek bi segundoko aldea atera zien horiei. Bigarren itzuliak, ordea, hauek izan ziren azkarrenak, baina segundo bakarreko al-



Aizpurua goran ezkerretik bosgarrena; Iraola beheran, ezkerretik laugarrena. ATARIA

dea kendu zien Sanjuandarrei. Azkenean, beraz, Ioana Alijostes, Nerea Perez eta Irati Larrañaga tolosarrek irabazi zuten bandera. Myriam Aizpurua eta Oihane Iraola Orioko arraunlari tolosarrak bigarren postuarekin geratu ziren. Hirugarren Donostiarrakoak izan ziren. Donostia Arraun Lagunak kanporatua izan zen.

Gizonezkoetan eskualdeko bi arraunlari dituen Hondarribiak irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa. Endika Lopez eta Jon Lizarralderen traineru berdeak erraz irabazi zuen estropada. Bigarren geratu zen Oriori 22 segundoko aldera atera zien. Hirugarren Donostiarra sailkatu zen eta laugarren San Pedro.

08

Zia edo boga

Plazerak min

Plazeraren mina da nostalgia; gozatutakoak utzitako hutsunea edo *carpe diem* guztien gordina. Nostalgia pizten digute bidaiek eta bidaideek; amaitu berri diren jaiek eta, batez ere, ajeeek; unibertsitate garaiko bizipenek; edo haurtzaroan mila bider errepikatu-tako abestiek.

Hiztegiak dio, nostalgia dela

«maite dugun zerbait urrun dagoenean edo, iraganekoa denean, sortzen zaigun goibeltasun sentimendua». Bada, ziur naiz, izango dela eliteko traineru ligen aurreko garaia nostalgia pizten dion arraun zalerik. Zale erromantikoak, estatxa ereserki epikorik entzun beharrik izan gabe askatzea gustuko dutenak; edo kale-zozketen izateko arrazoia estropadaro berrezarri nahiko luketenak. Horien guztien zorionerako, oasi mirengarria dira herrialdeetako txapelketak.

Traineruak eta arraunak ez dira egurrezkoak, eta nekez ikusi ahal izango da ibaiko gomazko txankleta *vintage*-ak soinean dituen arraunlari-rik. Baina leiho ederra dira, nola-hala denboran bidaiatzeko.

Tamalez, hitzorduok duela bi hamarkada izan zezaketen oihartzunak, izarren ligaren itzalean biziraun behar du orain, besterik ezean. Hotsandiko babesleen publizitaterik gabe, eta hots handirik atera gabe; akabo, nostalgia ren ederra.

Irabazleen monotoniatik eta batzuek-halabeharrez-erlojuaren-aurka arit-behar-izatetik kanpo, ordea, herrialdeetako txapelketek eman dituzte nahikoa arrazoi, 2038an joan den asteazkenekoaz nostalgia senti dezagun: Tolosaldeko traineruak bosgarren postua eskuratu du Gipuzkoako txapelketan, eta helmugarainoko txanpa ikusgarria eskaini dute emakumezko lehen bi sailkatuek. Ia min ematen duen plazera.



ITZEA URKIZU



Alex Sanchez Ogi Berriren ordezkaria, Ainhoa Artolazabal, Olatz Peon, Leire Olaberria eta Eukene Larrarte atzoko aurkezpen ekitaldian. A. IMAZ

Euskadiko eta Gipuzkoako txirrindulari onenak, bihar

Emakumeen Tolosako V. Sari Nagusia jokatu da hiru mailatan; lasterketak 15:00etan hasiko dira San Frantziskotik

Asier Imaz

Gipuzkoako eta Euskadiko Txirrindulari Txapelketak jokatu dira bihar Tolosan, Emakumeen Tolosako V. Sari Nagusiaren barruan. San Frantzisko kalean jarriko dute irteera eta helmuga, eta 15:00etatik aurrera, txirrindulariak sei bider pasako dira puntu horretatik.

Junior, 23 urtez azpiko eta eliteen lasterketan Gipuzkoako txapeladuna erabakiko da. Kadeteen lasterketan Gipuzkoako gain Euskadikoa.

V. Sari Nagusia atzo aurkeztu zuten Tolosako udaletxean. Olatz Peon alkateak lasterketari balioa eman zion: «Bizikletak eta emakumeen txirrindularitzak kirol alorrean eta sozialki, berdintasunean, jasangarritasunean, kiroltasun balioen transmisioan eta ohitura osasuntsuei begira suposatzen

duenagatik, ezinbesteko da bisibilizatztea, eta karrera honek hori lortuko du bosgarrenez».

Ainhoa Artolazabal Gipuzkoa Ogi Berri txirrindulari taldeko zuzendariak, lasterketan emakumeen presentzia handitzeko egin duten ahalegina aipatu zuen: «Lasterketan, antolaketa barruan, badaude hainbat lan esanguratsu. Horietan emakumeak jarri ditugu, kirolariez gain, atzeko lan garrantzitsu horietan ere emakumeen presentzia ikusgarri gera dadin». Besteak beste, lasterketako medikua emakumea izango dela azaldu zuen Artolazabalek, baita lasterketa hasierako eta amaierako auto gidariak eta hizlaria: Amaia Agirre bertsolaria.

Lasterketari dagokionez, Gipuzkoa Ogi Berriko zuzendariak, bihar Tolosan 90-100 txirrindulari izango direla iragarri zuen, «gehienak Euskal Herriko taldeetakoak». Nagusien mailan, eskualdeko ordezkariak izango direla ere aipatu zuen: «Ane Iriarte, Lierni Lekuona, Usabiaga ahizpak edo Eukene Larrarte».

Ibilbidea bi zirkuituk osatuko dute. Handia Tolosa-Lizartza-Tolosa-Irura eta Tolosaren artekoa izango da. Hau amaitzean txikiari helduko diote txirrindulariek. Kasu honetan Tolosa-Lizartza-Tolosa lotuko ditu lasterketak. 23 urtez azpiko eta elite mailakoek itzuli handiari hiru buelta emango dizkiote. Lehen itzuli handia amaitzen dutenean kadeteak eta juniorrak sartuko dira lasterketan.

Nagusiek 114 kilometro egin beharko dituzte, juniorrek 76 eta kadeteek 60.

Eukene Larrarte Gipuzkoa Ogi Berriko txirrindulariaren esanetan, lasterketa laua denez ez du zailtasun handiegirik izango, hala eta guztiz ere, «bizia eta polita izango da, esprintean ez amaitzeko saiakera bat baino gehiago egongo direlako». Tolosarraren kasua hori izango da: «Ez naiz egongo esprintaren zain. Lehenago saiatuko naiz lasterketa azkartzen. Aukera desberdinak jokatzen saiatuko naiz, eta ezin baldin badut, esprintean ahal dudana egin beharko da».

Mundu bat da mina

Minaren ingurukoak izaten dira, medikuon kontsulten %70-75. Minak kontatzen etortzen da, guregana, jende guztia, eta hori arazo bilakatzen da batzuetan. Ziur aski, minaren tratamenduan, puntu bateraino irits gaitezke; hortik aurrera, ordea, ez gara gai minari aurre egiteko.

Zer da mina, ordea? Filosofo askok esaten dute, mina esperientzia sentsozial eta emozional desatsegina dela; grazziarik egiten ez digun zerbait. Gehienetan ehunen lesioek sortzen dute mina, eta, azken finean, lesio hori existitzen denean, mina alarma edo defentsa mekanismo bat da gure gorputzarentzat. Esaterako, norbaitek atzetik jo eta min ematen digunean, gure gorputzaren lehen bulkada korrika hastea izaten da.

Mina objektiboa izan daitekeen bezala, ordea, minak badu osagai subjektibo bat ere: norbanako guztiok ez dugu min bera sentitzen, intentsitate bereko lesio baten aurrean. Minaren atalasea gorago edo beherago izatea esaten diogu horri eta, egoera emozionalaren arabera, intentsitate bereko zauriek min gehiago edo gutxiago sor diezagukete.

Areago, kulturak ere zerikusia izan dezake minen. Adineko asko, esaterako, hanka moztuta kontsultara etorri, eta «min pixka bat» ematen diela esaten dute. Aldiz, beste batzuk, liztor baten ziztadarekin etortzen dira, aieneka.

Medikuaren lana da hori kudeatzea. Paziente bat sekulako mina duela esanez etortzen bada, medikuak sine-tsi egin behar dio, neurri batean. Kontrara, batere minik ez dutela esaten duten pazienteak tentuz behatu behar dira, badaezpada ere. Horregatik, galdera asko egiten dizkiegu kontsultara

bertaratzen direnei, jakin nahi dugulako, min hori sailkatzeko gai ote garen: iraupena; lesio eragilerik baduen; mugimenduarekin lotuta dagoen; gauez edo egunez sentitzen den; jarraitua den edo joan-etorrikoa; kalanbrerik sortzen ote duen; leku zehatz bateko mina den edo zabaldu egiten den.

Modu horretan, gauzak zehazten ditugu. Hasteko, min hori akutua edo berehalakoa den edo ez erabakitzen dugu: alegia, mina oraintxe bertan gertatu den edo ez. Adibidez, lesioak gerta daitezke, pazienteak bihurritu bat egin duelako, hanka puskatu duelako edo erori egin delako eta, horren ondorioz, sistema bat aktibatuta da, min hori sortuz. Iraupen motzeko min hori lesio bati lotua izaten da normalean, eta, ondorioz, lesio hori sendatzen den heinean desagertuko da mina.

Min kronikoak ere badira, sei hilabete baino gehiago irauten duten minak, eta buruhauste handiagoak sortzen dituzte. Min kronikoak suerta daitezke lesioak sendatzen ez direlako, sendaezinak direlako edo, minaren eragilea sendatu den arren, minak hor jarraitzen duelako. Azken kasu horietan, mina sentitzen duen nerbioa hipersensibilizatu egiten da. Askotan, kasu horiek identifikatzea kostatu egiten zaigu, proba asko egiten ditugulako, eta min hori eragiten duen ezer aurkitzen ez dugulako; ez dago mina eragiten duen ezer.

Guk min-hartzaile batzuk ditugu: gure nerbio sistemako neuronek, zelula basalek, axoiak botatzen dizkiete azaleko, hezurretako eta tendoietako

sentsore-hartzaileei. Horrela, lesio bat gertatzen denean, sentsore horiek martxan jartzen dira, aktibatuta egiten dira, eta bizkarrezurreko muineraino joaten dira, kate bat bezala. Nerbio horiek guztiak muin horretan dute erdi-

gunea edo nukleoa eta, pixkana-pixkana, beste neurona batzuekin sinapsia eginez, garuneraino iristen dira, bizkarrezurrean gora. Orduan, gure garunak minaren kontzientzia hartzen du, eta baita min horren eragilearena ere.

Behin hori gertatzen denean, garuna min hori saihesteko neurriak hartzen hasten da. Lehenengoa erretiratzea da: mina eragiten duenetik aldentzea. Ondoren, minaren intentsitatea jaisten saiatzen da garuna, eta horretarako bere kable-sistemak baliatzen ditu. Adibidez: 04:00etan komunera jaiki gara, oinutsik, eta oheko hankarekin sekulako kolpea hartu dugu, oineko behatz txikian. Bat-batean sekulako mina sentitzen dugu, askotan, emandako kolpearekin proportzionala ere ez dena. Kolpea hartu eta garuneraino iritsi denean, mina sekulakoa da, baina, bost minutuan, izugarri jaisten da minaren intentsitatea. Hori garunak egiten du.

Noski, hori guztia nanosegundo batean gertatzen da, gure gorputzak sekulako prestakuntza baitu, horrela erantzun ahal izateko.

Baina, zer gertatzen da min kronikoekin? Diotenez, nerbio hartzaile horiek oso sentikor geratzen dira, eta edozein estimulurekin min handia sentiarazten dute. Horrez gain, min kronikoaren kasuan, mina murrizteko sistema horiek agortu egiten dira. Eragile fisikorik ez dagoen arren, beraz, mina bizi da.

«Min akutua gorputzaren defentsa mekanismo moduko bat dira; gure garunak minaren kontzientzia hartzen du»

«Zoritzarrez, '0 mina' ez da existitzen, eta oso zaila da min kronikoa erabat kentzea»

Izan ere, minaren defentsa izaera hori pasa egiten du min kronikoak, eta ezin negon bilakatzen da; bizi-kalitatea



AITZIBER ALZAGA
FAMILIA MEDIKUA



kentzen digu. Momentu jakin batean, gure sistemak pott egin du, eta min hori hor geratu zaigu.

Kasu horietan, arrakasta gehiagorekin edo gutxiagorekin joaten da tratamendua, guk beti gauza bera esaten baitugu: nahiz eta mila proba egin eta ezer ez aurkitu, ezin diogu inori esan min hori ez daukanik, mina baduelako. Oso sistema konplexua da, eta kausak guretzat ere ezkutuan daude; ziur aski, ikerketa neurofisiologikoei ekarriko dizkigute erantzun horiek guztiak.

Beste muturrean, bada minik sentitzen ez dutenen gaixotasuna ere. Nerbioak endekatu egiten dira, eta sensibilitatea galtzen dute. Neuropatia periferikoetan asko ikusten da hori, esaterako, eboluzionatutako diabetikoetan edo garun-infartu bat izan duten pazienteetan. Karga bat gehiago izaten da eurentzat, presio-ultzerak sortzen baitzaizkie, minik sentitzen ez dutelako. Ez dute alarmarik.

Mina tratatzeko erak

Minak sailkatu eta gero, gure lana minari tratamendua jartzen saiatzea izaten da. Min akutuetan askoz ere errazagoa izaten da hori, min kronikoetan baino, min akutuek lesio bati erantzuten diotelako.

Horregatik, bihurritzeen edo puskatzeen kasuan, adibidez, geldirik egotea gomendatzen dugu. Ez erabat, hori ere txarra delako: giharren atrofia sor dezake, eta gihar horiek berriro martxan

jartzean mina sortzen du berriro. Horrenbestez, mina jaisten doan heinean, giharrak martxan jartzen saiatu behar izaten da horrelakoetan.

Era berean, lesioek hanturak eragin ohi dituztenez, oso komenigarria izaten da gune horretan hotza jartzea. Azkenik, tratamendu desfarmakologikoa gomendatzen dizkiegu pazienteei: masajeak, elektro-estimulazioak, ultra-soinuak, akupuntura, ... Horiekin batera, eta horiek funtzionatzen ez badute, farmakoak ere erabiltzen ditugu, minaren kontra: ibuprofenoa, diclofenacoa, aspirina, paracetamola eta familia hori guztia.

Aipatzekoa da, produktu horiek erabili behar direla, erabiltzeko beharra dagoenean, eta dosi justuan, mina kentzeko; gehiago hartzeagatik, mina ez da lehenago joango. Guk esaten dugu, botika horiek sabai terapeutikoa daukate: dosi jakin batera iristerakoan, gehiago hartuta ere, efektua ez da areagotzen. Eta, gainera, anti-inflamatorioek, digestio lesioak sor ditzakete dosi handietan, eta epe luzez hartzen baldin baditugu, tentsioa igo dezakete edo bihotzeko gaitzak izateko arriskua igotzen da. Horrenbestez, antiinflamatorioak dagozkien dosian hartu behar dira, eta denbora tarte labur batean.

Dosi egoki horiek mina kentzen ez badute, mina kentzen duten botiken hurrengo mailara igo beharko dugu, opioide ahulen mailara: morfina lehengusu txikiak dira, adibidez, trama-

dola eta kodeina. Eta, azkenik, azken eskalan leudeke opiozkoak: morfina eta bere anai-arrebak.

Opiozkoak: aurkia eta ifrentzua

Azken asteotan, aipamen bat baino gehiago izan dute opiozkoek, komunikabideetan; antza, gehiegi erabiltzen dira. AEBetarik dator albistea, jende asko hiltzen baita halako produktuen gaitzengatik jota, edo menpekotasun arazo handiekin. Besteak beste, Michael Jackson eta Prince halako botiken gehiegizko erabilera gaitik hil ziren.

AEBetan hori gertatzen ari baldin bada, guk ere adi egon behar dugu, jorra hori hemen errepikatzea ia ziurra baita. Badirudi, farmako horien erabilera tabu izatetik ia eguneroko ogi izatera pasatu dela. Lehen, morfina aipatu eta jende guztiak minbizia oso aurreratuarekin lotzen zuten, edo heriotzarekin. Gainera, zaila zen produktua bera lortzea, eta errezeta bereziak behar ziren. Azken bi hamarkadatan, ordea, beste aldera pasatu gara: aurkezpenak asko aldatu dira, farmakoen aukera zabaldu egin da, lortzea errazagoa da eta baditu abantailak: lehen min batzuk gutxiegi tratatzen ginituen, eta jendeak asko sufritzen zuten.

Hori bai, opiozkoek arazoak sortzen dituzte. Antiinflamatorioek ez bezala, opiozkoek ez daukate sabai analgesikorik: minak irauten baldin badu, dosia igotzen joan gaitzke, mina kendu arte. Ordea, tolerantzia sortzen dute, eta hasieran 10 miligramorekin nahikoa baldin bada, denborarekin 15 miligramo beharko dira, eta konturatzerako 20 eta 30 miligramo. Heroinaren familiakoak dira, eta menpekotasuna sortzen dute; kontsumitzaileen %30ek menpekotasuna dute, eta hori asko da. Horrenbestez, medikuok ere kontuan izan behar ditugu datuok, eta opiozkoak behar direnean erabili behar ditugu.

Zoritxarrez, 0 mina ez da existitzen eta, beraz, gure funtzioa da, pazienteek min pixka bat bakarrik izatea; eguneroko bizitza egin ahal izateko min atalase bat lortu behar dugu, baina min kronikoen kasuan hori lortzea oso-oso zaila izaten da, ezinezkoa ez esateagatik.



OFF

Etengailua sakatzeko irrikatan gaudela dirudi lehen eguzki printzak agertu diren honetan. Mendi, hondartza, terra-za nahiz erreka bazter batean denboraren zentzua galdu eta liburu eta musika pixka batekin eguna lasai igaro nahiko dute batzuek; kirolei, etxeko konponketei edota beste zaletasunei ekin nahiko diete beste batzuek.

Ez dugu asmatzen ordea deskonexio digitalarekin. Frantzia saiakera egin dute urte hasiera honetan lan esparruan, legez ezarritako deskonexiorako eskubidearekin. Titularrek itxaropentsuak ziruditen arren, errealitatea paperean baino gordina goa da. Legeak ez dio inondik inora

langileek beren lan orduetatik kanpo telefono mugikor nahiz posta elektronikoa erabiltzeko eskubidea dutenik. Izan ere, ez da definitzen zer ote



ANDER LORENTE
IRAKASLEA ETA
INGENIARIA

den deskonexiorako eskubidea bera eta bere edukiaren ezarpena lekuan lekuko lan hitzarmenen esku uzten da. Hitzarmenik ez balego, enpresaren esku geratuko litzateke proposamena gauzatzea, baina ez da aurreikusten langileek proposamen hau ukatzeko aukera izango dutenik. Lana eta norberaren bizitzaren arteko kontziliaziorako bidean lehen pausoa izan bada, nahiz eta praktikara eramatean bide luzea geratzen zaion ekimen honi benetako errealitate bihurtu dadin. Lanpostu guztietan gauzatzea ezinezkoa da, jakina.

Hala ere, oporraldian lan kontuez ahaztea gehienok atsegin dugun arren, mundu digitalarekin dugun konexioa haustea oso zaila egiten zaigula deritzot. Geroz eta ohikoagoa da jendeak jai egunetan mugikorra itzali egiten duela lau haizetara harro zabaltea, baina norberaren burua engainatzeko modu ahul bat besterik ez da. Posta elektroniko eta sare sozialekin dugun dependentsia areagotu egiten da aisialdi garaian, bai dibertsio eta baita aspertzea ekiditeko nahiarekin. Ordu batzuetako etenaldi elektronikoa egingo duela Facebook eta Instagram bidez iragarriko duenik ere izango da, ziur. Urtean gutxi batzuetan egin dezakegun ariketa interesgarria izan daiteke, baina harago doan emaitzarik ez du sortzen gehiengoarengan. Lagun batek dioen moduan, denok ez dugu esateko zerbait, baina beti dugu erakusteko zerbait, are gehiago data seinalatu hauetan. Dagoeneko sarea bete da paella, hondartzetako oin biluzi eta aireportuetako terminal etako pantailez.

«Oporraldian lan kontuez ahaztea gehienok atsegin dugun arren, mundu digitalarekin dugun konexioa haustea oso zaila egiten zaigula deritzot»

Nik aurtengoan ere ez dut deskonexiorik egingo. Liburu eta egunkarien paper usaina berreskuratu dut dagoeneko, ez da gutxi. Whatsapp soil ez gain, posta-txartel bakanen bat bidaltzeko helburu txikia jarriko diot neure buruari. Ez bada zeure postontzira iristen, ez kezkatu. Ahaztu laneko posta, heldu kirola edo atsedenera. Eta paella, ahal izatera, platerean. Uda on!!

Feminismoaren mila aurpegi



Feminismoaz hitz egitean orokortasunetik hartu ohi dugu beti, baina feminismoari soilik erreparatu beharrean, feminismoaren abanikoari heldu beharko genioke. Horregatik, feminismo terminoaz harago pentsatu eta geure buruak gehiago kokatzeko aukera luzatzen dizuegu.

Hasteko, feminismo liberala jarri dugu ikusmiran. Feminismo honek emakumeen eskubideen lorpenean oinarrituriko historia luzea izan du, bai eta erreferentzia handiak ere; hala nola, Mary Wollstonecraft, Harriet Taylor Mill edota Elizabeth Cady Stanton. Ezberdintasunean oinarrituriko balore feudal patriarkalei aurre egiteko xedeaz sortu zen Europan kapitalismoaren garapenarekin batera. Hasieran batean, sistema beraren barruan legeak aldatzeko nahia erakutsi zuten arren, justizia eta emakumeen eskubideak lortu ahal izateko, estrategia liberala ez zela nahikoa ikusi zuten. Horregatik, emakumeek ere aukera berdinarak izatea aldarrikatuz, baldintza berberak izatea aldarrikatuz bera igaro ziren.

Geroago sortuko zen korrontea feminismo erradikala da. Feminismo liberalak hartu zuen begirada pragmatikoa albo batera utziz, hauek gizartearen eraldaketa eta ins-

tituzioak berregituratzea eskatzen zuten. Feminismo erradikalaren usteetan, bi klase sozial aurkitzen dira –gizona klase sozial zapaltzaile gisa, eta emakumea klase sozial zapaldu gisa– eta ezberdintasunaren forma guztiak ordezkatzeko dituzte, bai politikoa, baita ekonomikoa ere. Patriarkatua ezabatzeke beharrezkotzat dute generoa ezabatzea, hau da, baldintza sexuala. Ondorio gisa, sexu/generoan oinarritzen ez zen gizarte bat nahi zuten, non gizon zein emakumeak berdinarak izango ziren.

Inguruan gutxi aipatua izan arren, anarko-feminismoa ere zabaldu da hainbat eremutan. Korronte honetako kideek ez dute inongo hierarkia edo autoritatean sinesten. Beraien ikuspegi marxismotik eta liberalismotik eratorri dela esan liteke, baina feminista erradikalek bultzatzen duten arrazoi beragatik borrokatzen dute. Bestalde, eko-feminismoa ere aipatu beharra daukagu. Eko-feminismoan, gizaki eta ez gizakiaren zapalkuntzarako, emakumeen posizio historikorako, eta ikerketa psikiko eta sexualaren analisirako kategoria zentrala natura da. Praktikan ere ikusi izan da, emakumeak abangoardia izan direla natura babesteko borrokan.

Azken korronte gisa fe-

minismo marxista eta feminismo sozialista ditugu. Feminismo marxista Marx, Engels edota Leninen idatzietara atxikitzen da, eta beraz, kapitalismoaren barruan aurkitzen den emakumeen esplotazioaren analisisan jaritzen dute arreta. Feminista marxistek patriarkatua eta kapitalismoa bi sistema autonomo gisa identifikatzen dituzte, non kapitalismoak forma ekonomikoa duen, eta patriarkatuak berri, forma ideologikoa. Feminista sozialistek, ordea, patriarkatua kapitalismoa baino lehenagokoa den fenomeno unibertsal gisa identifikatzen dute, gehituz gizarte guztietan historikoa dela. Hauen iritziz, sistema bakarra aurkitzen da, eta hori sistema kapitalista patriarkala da.

Ikusi dugunez, anitzak dira feminismoaren korrontek eta are anitzagoak bakoitzaren aldarrikapenak. Aipaturikoak aipatuta, kon-tuan izan behar duguna zera da: analisi eta estrategia oker batek kalte egin diezaiokete mugimenduari. Hori argi ikus daiteke mugimendu feministaren historian. Emakumeen zapalkuntza estruktura sozio-ekonomiko eta politikotik bereizita ulertzean, sistema inperialista barruan bilatu dituzte konponbide edo mekanismoak feminista aitzindariak, eta hau egun errepikatzen den fenomeno bat da. Mekanismo hauek, gehienez ere, klase ertaineko emakumeen sektore batzuetara soilik iritsi dira, gehiengo emakume zapaldu eta esplotatuen askapena albo batera utziz.

Laburbilduz, korronte hauen azalpen txiki hau egin ondoren, argi ondoriozta daiteke emakumeen askapenerako borroka ezin duela arrakastarik izan sistema inperialista bera suntsitzeko borrokatik isolatzen bada.

Informazio gehiago nahi izanez gero korronte feministen inguruan ikus ondorengo esteka: <https://borrokagaraia.files.wordpress.com/2018/05/cricc81tica-al-feminismo-en-occidente-anuradha-ghandy.pdf>.



**TOLOSAKO
NESKA TALDEA**



ELKAR ERRESPETUAN DAGOGAKOIA

Txirrindularien segurtasunaren gaia lehen lerroan jarri du Leonen hildako Jose Carlos Carrasco eta Nerea Agirrereren kasuak. Horrelakorik errepikatu ez dadin, «errespetua» eskatu dute txirrindularitza zaleek, ez baita samurra errepideko eguneroko errealitatea.

Mikel Iraola

Txirrindulariak dira errepideko ahulenak. Auto eta kamioiekin elkarbizitza ez da batere erraza: segurtasun eza, alkoholaren eraginpean gidatzen duten burugabeak, legearen aurrean babes falta... ertz askoko gaia da errepideko segurtasunarena. Gordina baita asfalto gaineko errealitatea.

Leongo istripuak mahai gainean jarri du berriro ere gaia. Zikloturisten eta txirrindulari gazteak hezten dabiltzanek badute zeresana horren inguruan. Errespetua eskatu dute, baita autokritika egin ere, segurtasuna irabazteko «guztionez arduratu baita trafiko arauak errespetatzea».

Hala ere, kontzientziazioa eta bide heziketa beharrezkoak direla nabarmendu dute. Izan ere, badira oraindik

jendeak ezagutzen ez dituen arauak. Garrantzitsuena, distantziarena: 1,5 metroko tartea utzi behar da txirrindulariak aurreratzeko. Gutxi dakite, esaterako, ikusgarritasuna dagoen lekuetan, eta nahiz eta lerro jarraitua izan, aukera dagoela aurreratzeko. Biribilguneetan ere tropel bat sartu den unetik, ibilgailu oso bat bezala funtzionatzen du. Horiek eta gainerakoak errespetatzean dago elkarbizitzarako gakoia.



Irrintzi elkarteak, 2008az geroztik, zikloturista martxa bat antolatzen du, urtero, Amasa-Villabonan. UNALIZARTZA

Ez delako bizikleta bat, pertsona bat baizik

Josu Artutxa Dorronsoro

Euskal Autonomia Erkidegoan federatutako 277 txirrindularitza talde daude guztira. Horieta-ko batzuetan, hurrekin lan egiten dute, beste batzuetan, berriz, kirol honetarako afizioa duten pertsonak biltzen dira, zikloturista modura. Villabonako Irrintzi elkarte horren adibide da; lehen eskola bat zen, eta orain, jende gutxiago ibiltzen denez, zikloturista talde bat eta triatloietan aritzen diren talde bat ditu.

Gaizka Ezeizak (Villabona, 1991) betidanik izan du bizikletarako afizioa eta duela gutxi sartu zen elkartearen. Txirrindularitza sekzioko kudeatzailea da bera. Ezeizak dioenez, errepideetan geroz eta txirrindulari gehiago ikusten dira, eta horrek, istripuak gertatzeko arriskua areagotzea dakar. «Nahiz eta egoera behin eta berriz azaldu, kontzientzia handiagoa behar du jendeak, ez zaiolako beharrezko garrantzirik ematen. Izan ere, une puntual batean gogaituta egotetik aurretik eramateraino alde handia dago».

Euskal Herrian, geroz eta handia-

goa da bizikleta gainean aritzeko afizioa. Ezeizak, alabaina, argi du, edozein tokitan, txirrindularia, beste ezer» baino lehen, pertsona dela. «Txirrindulari madarikatuak!» bezalako esamoldeak entzun izan ditu zenbait gidariren ahotik. Hortaz, kontzientzia handiagoa, horiek izan beharko luketela uste du. «Nahiz eta askotan aurreratzeko gogoia eman, guztiak eskubide berdinak dituzte errepidean». Hala ere, istripu bat gertatzean, errua autoarena soilik ez dela izaten ere aitortzen du, baina alderaketa eginda, «kontuan izan behar da, autokoa bizikletakoa baino seguruago doala». Bestalde, bizikleta gainean erotuta ibiltzen direnak ere izaten direla dio.

Esperientzia pertsonaletik abiatuta, orain, lehen baino lasaiago ibili daitekeela uste du Ezeizak, agian, kirol honen gizarteratzea handiagoa delako gaur egun. «Bizikletan ibiltzen diren askok hartzen dute edozein unetan autoa, eta horiek errespetu handiagoa izaten dute besteekiko». Egoera lehen baino hobea den ala ez jakitea, ordea, ia ezinezkotzat jotzen du, nahiz eta aldaketa txiki batzuk eman diren.

Hamar urte besterik ez zituen, errepideak justu antzean ezagutzen zituela, bizikletan ibiltzera irten zenean. Afizio galanta zuen, baita errepideko gainontzekoekiko errespetua ere, baina egun hartan ezagutu zuen lehen aldiz zer den istripu bat. «Stop batean geratu nintzen, eta atzeko autoak gauza bera egin zuen. Aurrera joateko esan zidan niri, bidean jarraitzeko, baina berak ere horixe egin zuen, hala-ko batean, jo ninduen arte. Sustoa handia, nahiz eta harrigarriena ondoren berak alde egitea izan zen». Azkenean nor zen jakin ahal izan zuen, baina ez zen ondorio larriagoetara heldu.

Horrelakoak ez gertatzeko zer egin daitekeen galdetuta, Ezeizak argi dauka. «Eskoletan, gaztetxoei nolabaiteko arau batzuk irakastea ezinbestekoa dela iruditzen zait. Horrela, gutxieneko ezagutza bat lortzera heldu daitezke». Horrez gain, txirrindulari gehien aritzen diren lekuak, leku apartatuak direnez, «beharrezkoa da gehiago jartzea, zenbait errepideetan, animalien aurki daitezkeen bezala, txirrindulari batekin topo egin dezakezula ohartarazten zaituztenak».

«GUZTIOK ERRESPETATU BEHAR DITUGU TRAFIKO ARAUAK, DENON SEGURTASUNERAKO»

AITOR AYERZA

ORIAKO TXIRRINDULARI ESKOLAKO LEHENDAKARIA

Ayerzak urteak daramatza txirrindulari gazteak hezten. Ondo asko ezagutzen ditu errepideko bi ikuspuntuak: gidariarena eta txirrindulariarena. Elkarren arteko errespetuaz, segurtasunaz, heziketaz eta kontzientziaz mintzo da 'Ataria'-rekin.

Mikel Iraola

Jose Carlos Carrasco eta Nerea Agirre biltzarrearen heriotza kolpe gogorra izan da eskualdean, baita Oriako Txirrindulari Eskolako kideentzat ere, bertan ibiltzen baita bikotearen semea, Orats.

Aitor Ayerza (Berrobi, 1967) taldeko lehendakariarentzat ez da kasualitate hutsa izan. Honen atzean testuinguru bat dagoela azaldu du. Gertakari horrek berriro ere lehen lerroan jarri du txirrindulari eta gidarien arteko elkarbizitzaren auzia. Guztientzat lekua dagoela aldarrikatu du Ayerzak, eta horretarako gakoa elkar errespetuan dagoela uste du. Mezua argia da: «Trafiko arauak errespetatzea guztion ardura da».

Garrantzitsuena, zer moduz zaudete?

Hobeto, zerbait esatearren. Egunak pasa ahala ari gara mentalizatzen, baina oso gogorra izan da. Ez dakit malakorik geratzen zaidan ere. Jendeak ere babes asko eman digu. Joan den igandean jendearen partetik jaso genuen erantzuna izugarria izan zen.

Hasi aurretik argitzea komeni da: istripua edo errepideko indarkeria da?

Kasu hau indarkeria da, dudarik gabe. Berriz diot, kasu hau. Gerta daiteke bestelako istripuren bat. Denoi gerta dakiguke. Baina honakoan ez da hori

gertatu. Pertsona batek baimendutako alkohol tasa bost aldiz gaindituta eta aseguruik gabe gidatu du. Istripua eragin, gelditu, autotik jaitsi, panorama ikusi eta alde egitea erabaki du. Hori ez da istripua, zerbait larriagoa da.

Zure ustez zerk bereizten du istripu izan ala indarkeria kasua izan?

Alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeak, alde batetik. Ezin da horien eraginpean gidatu, eta mila bider erripikatu arren bada hori egiten jarraitzen duenik. Bestea da alde egitearena, laguntzarik eman gabe.

Arazo baten aurrean gaudela esango zenuke?

Bai, guztiz. Baina, oro har, gizartean dago arazoa. Eta sumatzen dut okerra doala, gainera.

Zer egon daiteke arazo honen atzean?

«Etengabe presaka bizi da gizartea, eta ez dugu segundo bakar bat ere itxaroteko pazientziarik»

Gizartearen egoera islatzen duela esango nuke. Etengabeko estres egoera batean murgilduta dago gizartea, presaka, itota, urduri. Errespetua ere galdu da, asko. Eta gauza askorekiko.

Gustuko ez dugun zerbaiten aurrean, purrusta da lehen erantzuna. Ez dugu segundo bakar batez ere zain egoteko pazientziarik. Tropel bat aurreratzea Hamar segundoko kontua da, eta 30 badira ere itxaroten jakin behar da. Autoak kamioi eta traktoreen atzetik joaten dira, eta aurreratzeko aukera duten arte. Zergatik txirrindulariekin ez? Ahulagoak direlako?

Nagusitasun nahia ere egon daiteke atzean?

Baliteke. Autoa hartzean uste dugu gehiago garela, guk dugula kontrola bizikleta baten aurrean. Eta ez da horrela. Guztiok dugu errepidean egoteko eskubidea, baita lekua ere. Hala ere, badira beste elementu batzuk ere: errepideen egoera, sentsibilizazio falta, mugikorren erabilera...

Zein da txirrindulari baten egoera errepidera ateratzen den unean?

Euskal Herrian, orokorrean, errespetu handia dagoela uste dut. Hala ere, badira arriskuak, eta gertatzen dira istripuak. Gauza batzuk guk geuk ekidin ditzakegu, baina beste batzuk hirugarren batzuen esku daude. Eta orain horrek sortzen du beldur gehien, ez baitakizu zer topatuko duzun.

Txirrindularitza zale, guraso eta txirrindulari eskola bateko lehendakari zaren heinean beldurra sentitu izan duzu?



Beldur gehien aita bezala sentitzen dut, askotan bakarrik joaten direlako semeak. Askotan ez dakit autoarekin atzetik laguntzera joan edo ez. Eskolako gaztetxoekin ere tentuz joaten gara, autoekin babestuz. Ni neu ateratzen naizenean neurriak hartzen ditut, eta agian ez dut horrenbesteko beldurrik sentitzen. Baina gazteekin bai. Eta gehiagora doa beldur sentsazioa.

«Txirrindulariok ere lagundu egin behar dugu errepidean, segurtasun gehiago irabazteko»

Beldurra zergatik?

Kasu gehiago entzuten direlako egunetik egunera. Berriz diot, Euskal Herri mailan, baita Tolosaldean ere, errespetu handia dago. Burugaberen bat topatzeko beldurra, ordea, leku guztietan dago. Garai batean beldur nagusia erorketaren bat izatearena izaten zen. Beldur hau ezberdina da.

Gorrotoa sentitu izan duzu?

Bai, baina puntualki. Gehienbat errepidean lanean dabiltzanen aldetik: banatzaileak, garraiolariak... Ez da oro-korra, baina badaude kasuak.

Nola sor daiteke errespetuan oinarritutako elkarbizitza bat errepidean?

Trafiko arauak errespetatzea da garrantzitsuena. Guztiok: bai txirrindulariok, baita gidariok ere. Gidari bat jarriko nuke ibilbide bat egiten bizikletaz, eta txirrindulari bat bide bera egiten autoz. Bi ikuspuntuetatik bada zer ikasi. Ni bietan ibiltzen naiz eta gauza ezberdinak ikusten ditut. Saiazen naiz bestearen buruan jartzen. Txirrindulariok ere lagundu egin behar dugu, segurtasuna irabazteko. Gero, gaztetxoengan jarri behar da fokua. Umetatik trafiko arauak ongi irakatsi behar zaizkie.

Oriako Txirrindulari Eskolan, adibidez, nola hezten dituzue gazte-txoak?

Heziketa mota ezberdinak dira. Ne-guan, esaterako, federazioari esker belodromoan entrenatzeko aukera dugu kadete eta jubenilekin astean hiru egunetan. Pistako entrenamenduak onak izaten dira zuzen joaten ikaste-ko. Errepidean ahalik eta mugimendu gutxien egitea komeni da, ezkerrera mugituz gero autoak hor daudelako. Gero, udalarekin harremanetan gaude aterpe bat utz diezagun, ginkana batzuk antolatzeko. Batik bat, horrelakoak egiten dira bizikleta gaineko gaitasuna lantzeko. Martxotik aurrera, ordu aldaketarekin batera, errepideko entrenamenduak egiten hasten gara. Euririk ez badago, arriskua bikoitza

baita bestela. Hasieran hitzaldi bat ematen zaie jarraibide guztiekin, eta irten aurretik beti errepikatzen diegu nola joan behar duten.

Eta zer nolako neurriak hartzen dituzue errepidera irteterako orduan?

Hogei laguneko taldea gara askotan. Gurasoei laguntza eskatzen diegu beti, eta zentzu horretan zorte ona dugu. Oratsen aita beti etortzen zen horietakoa zen, esaterako. Talde txikitantolatzen ditugu gero, eta horietako baita guraso pare batekin joaten dira. Horrez gain, atzetik ahal dela taldeko kotxea joaten da, argiekin, gaztetxoak babesteko. Azkenaldian, adibidez, gure txirrindulariei esaten diegu argiak jartzeko, horrek ere laguntzen duelako.

Zaharragoak, ordea, beren kabuz irteten dira. Eta kasu horietan zer egiten duzue?

Bai, azkenean ordutegiak asko aldatzen dira adinean gora egin ahala, eta ateratzen dira taldean, taldekideak batera. Astean behin talde osoa ateratzen da zuzendariarekin, talde giroa egiteko. Autoa ere hor doa, babestuz. Baina hori gehienez egun batean izaten da. Gainontzean, beraiek badakite nola joan behar duten. Esaten diegu leku batzuetan binaka joateko aukera dutela, baina beste batzuetan, segur-



tasunagatik, lerro bakarra osatzeko. Berriz diot, txirrindulariok ere lagundu egin behar dugu errepidean: gidariak keinuak egin, paso eman, erabat zabaldua ez joan, erditik ere ez... Gidariak ere eskertu egiten dute. Ezin dugu jolasean joan. Gu gara ahulenak errepidean. Eta arau guztiak errespetatuz bagoaz ere, gidariak ahalik eta gehien lagunduz gero, hobeto. Gure esku dagoena egin behar dugu segurtasuna irabazteko.

Txirrindulari bezala autokritika egingo zenuke?

Bai, handia gainera. Gehienbat zikloturistekin. Arauak errepetatzeke daude, autoan zoazenean bezala. Gaztetxoekin entrenatzen ari garela, gertatu izan zaigu arau urraketak txirrindularien aldetik ikusteak. Ikaztegieta, adibidez. Semaforoa gorri egon, eta nahiz eta ez dagoen autirik, gu gelditu. Eta zer eta alboetatik zikloturista talde batek aurreratu. Hori ez da bidea, ez dago batere ondo. Nahiz eta ikusgaitasuna izan, arauak errespetatu behar dira. Nik noizbait izan dut eztabaidaren bat, arau hausteren bat ikusi izan dudanean. Eta batzuetan esaten dizute batez besteko denbora jaitsiko zaiela. Barkatu, zer? Martxa zikloturista batzuetan dagoen lehiak ez du mesederik egiten. Horrelako martxak antolatzen ditugunean Erztzaintzak eskatzen digu arauak betearaztea. Eta guk esan, esaten dugu. Baina batzuk ez digute kasurik egiten. Eta hor liskarrak. Ardurara hori antolatzaileena al da, ba? Azkar doazen askok ez dituzte arauak errespetatzen. Atzean doazenek gehiago: anoa guneetan gelditu, trafiko arauak errespetatu... Hori da benetako zikloturismoa. Bistan da badagoela zer hobetu.

Lege aldetik babes falta duzuela azpimarratu duzue behin eta berriz. Zertan da egoera?

«Autokritika handia egiten dut txirrindulari moduan. Arauak errespetatzea ere gure egitekoa da»

Legea oso gaizki dago txirrindularientzat. Irakurri

dut Leongo istripua eragin zuen gidariari gehienez lau urteko zigorra baino ez diotela ezarriko, ziurrenik. Beste kasu batzuk ikusi besterik ez daude. Edanda gidatu, istripua izan eta hildakoak eragin izan dituzten batzuk kalean daude. Mallorcako (Herrialde Katalanak) kasu bat dator kit burura. Gidari batek lau txirrindulari hil zituen, eta positibo eman zuen drogen azterketan. Azken finean, alkohola edo drogak tartean daudenean, ez dakit istripu deitzea egokia den. Gidariaren axolagabekeria, ardurara falta, hor dago.

Beraz, zerbait aldatu behar dela uste duzu?

Gaizki egiten duenarentzat, bai. Aipatu dituen kasuetarako lege gogorragoa behar da, gidariak badutelako beren ardurara. Ez nituzke gauzak nahasi nahi, baina lagun batek aipatu zidan ziur aski Altsasuko gazteek denbora gehiago emango dutela kartzelan Leongo gidariak baino. Eta Altsasukoek ez dute inor hil. Horrek erakusten du badela aldatu beharreko zerbait. Batik bat alkohola tarteko dagoenean. Ez da istripu soil bat.

Beste ezer faltan sumatzen duzu errepidean?

Seinale gehiago, adibidez, eta ikusgarriagoak. Gidariarentzat eta txirrindularientzat. Bideak ere garbitu egin behar dira. Bide bazterrak zikinak egoten dira askotan: txatarra, harria, kristalak... Lehen gehiagotan garbitzen zituen Al-

dundiak. Azkenean, bizikletaz zoazenean bazterrak ziki-
nak badaude, ziurrenik ez zara bazterretik joango, erdira-
go baizik, horrek dakarren arriskuarekin.

Gero, uste dut ertzainen presentzia handiagoak gauzak
lasaituko lituzkeela. Ertzaina ikustean txipa aldatzen zaie
askori, izan gidari edo txirrindulari. Arauak errespetatu
egiten dira orduan. Kaskoa erabiltzeko kanpainarekin
presentzia handitu zuten, eta isunekin hasi aurretik egin
zuten horrelako kontzientziazio bat, jendea geldituz eta
abar. Guztiok lasaiago ibiltzeko balio lezake, adibidez,
presentzia horrek. Hala ere, ertzainak lege eta arau ba-
tzuen barruan aginduak betetzen dituzten pertso-
nak dira. Hortik gora doaz gure eskakizunak.

**Txirrindularitzan dena
ez da beldurra eta kez-
ka. Kirol ederra da, ez al
da horrela?**

Kirol oso polita eta osasuntsua da. Badu harrapatzen zai-
tuen zerbait. Nik, esaterako, txikitatik zaletasuna guraso-
engandik jaso nuen, eta odolean sartu zait. Gauza ederrak
ditu txirrindularitzak: leku asko ezagutzen dituzu, berezi-
ki, adin batetik aurrera zikloturismoa egitean. Turismoa
egiteko beste modu bat da. Bidean ere harreman asko egi-
ten dira. Familiarekin Lizarra aldera joaten ginen opor
egun batzuk pasatzera, eta han inguruan ateratzen ginen
bizikletarekin. Hango jendea ere ezagutzen nuen horren-
beste urteren ondoren, eta semeak harrিতuta geratzen zi-
ren. Horrek balio handia du.

Gomendatuko zenuke, beraz, txirrindularitza.

Bai, %100ean. Txikitatik hasiz gero, gainera, hobe. Azken
batean, arauak lehenago ikasten dira, errepidean ibiltze-
ko modua eta bizikleta gaineko gaitasunak ikasten dira...
Eta aurrerago ere bai. Begira, joan den astean Orexako
mutiko batek eman zuen izena eskolan. Aitak bizikleta
bat erosi du semearekin ateratzeko. Hori oso pozgarria da.
Guraso eta seme-alaben arteko harremana indartzen
duen kirol bat da, eta gauza ederra da hori.

**Beldurra kentzeko modua ere izan daiteke txirrin-
dulari eskola bat?**

Dudarik gabe. Gaztetxoak, bereziki, mendiko bizikletekin
herri barruan ibiltzen ohituta daude. Eta guk irakasten
diegu errepidea ez dela jolasa, arau batzuk daudela. Hor-
taz, umetatik errepidera ateratzen badira –errepide la-
saietan, lagunduta eta kontrolpean beti ere–, gaitasuna
hartzen dute, zuzen joaten ikasten dute... Ohitura horiek
txikitatik landuz gero, errepidean ere lasaiago joaten dira,
arrisku gutxiagorekin.

**Amaitzeko, Tolosaldeaz zer esan? Zein bide dira go-
mendagarrienak eskualdean?**

Esan dut, eskualdean asko errespetatzen da, oro har. Bideei
dagokienez, guk Goierrri aldera jotzen dugu gehienbat, baita
Lizartza aldera ere. Horiek dira lasaienak, alboan badirela-
ko abiadura handiko errepide gehiago. Andoain aldera, be-
rriz, mugimendu gehiago nabari da, enpresa gehiago dau-
de, handiagoak dira herriak... Uda partean ere Orio ingu-
ruan mugimendu asko dago. Larraitz, Azpiroz...
Zumarraga bera ere bai. Horiek dira biderik lasaienak.

**«Txirrindularitza kirol
ederra da. Familia arteko
harremana sendotzeko
balio du, esaterako»**



“

«ZORIONEKOA
NAIZ, HAIN AUKERA
URRIA EDUKITA,
ETXEAN JOTZEN
ARITZE AGATIK»

IGOR AROSTEGI ACOSTA

EUSKADIKO ORKESTRAKO PERKUSIO JOTZAILEA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikari izatea ez da ahuntzaren gauerdiko eztularen parekoa. Igor Arostegik, aldiz, egindako lanari esker, ilusioz hartu du bertan perkusio jotzaile bezala aritzeko albistea; amets bat bete duela dio.

”



Josu Artutxa Dorronsoro

Musikarako lotura familiaratik dator kion arren, harreman hori sortzetik soilik ez, eta egitetik ere indartu dela aitortzen du Igor Arostegi Acostak (Tolosa, 1990). Betidanik izan du notak irakurtzeko grina eta abilezia. Eduardo Mocoeroa Musika Eskolan burutu zituen solfeo eta perkusio ikasketak, eta gerora, Musikenen Goi-Mailako ikasketak gauzatu zituen. Duela gutxira arte, irakasle bezala ari zen lanean, baina aurrerantzean ezin izango du jarraitu. Izan ere, Euskadiko Orkestran aritzeko postu finkoa lortu zuen ekainean, eta lehenago kolaboratzaile gisa aritu zen taldeak zama handiagoa eskatuko dio hemendik aurrera. Berak, ordea, ilusioz hartu nahi du, postua ezaguna zaion arren, ez duela egoera berri honetan presiorik sentitu nahi. Ikasten jarraitzeko asmoa du, baita datozenei irakastekoa ere.

Ez dakiten horientzat, zer suposatzen du Euskadiko Orkestran musikari bezala aritzeak?

Euskal Herrian izen handia duen entitate da. Orkestra batean sartzea, ez Euskal Herrian soilik, oso zaila da, plazak mugatuak izaten direlako. Amets

bat da niretzako, postu hau lortzeko, urte luzez aritu naizelako lanean.

Nola suertatu zitzaizun aukera, eta zein izan zen zure erreakzioa?

Plataforma desberdinak daude, mundu mailako orkestra ugarietako postuak libre daudela iragartzen dutenak. Horien bitartez jakin nuen postu honen berri, eta pentsatu gabe erabaki nuen bertan izena ematea.

Aurrena, ordea, lehen perkusio jotzailearentzako probak egin zenituen, baina ez zenuen postu hori eskuratzeko lortu.

Dueta bi urte, erretiroa hartu zuen perkusio jotzaile batek, eta beranduago, Parisko Orkestrara joan zen beste bat. Orduan, bi postu zeuden libre, bakar-lari batena eta tinbalak joko zituenarena. Ez da oso ohikoa izaten horrelako aukera bat suertatzea, baina bi frogak bi asteren barruan zirela jakinda, bietan eman nuen izena. Lehenengoan, ordea, zapora gazi-gozoarekin geratu nintzen, bigarren errondara igarotzea lortu nuelako, baina ezin izan nuen postu hori lortu, agian ez zelako egun onena izan. Hortaz, bigarren frogarako, entseguak egiten eta ikasten jarraitzea erabaki nuen, eta noski, mentalki ere indartsu egotea beharrezkoa nuen.

Gerora egin zenuen bigarren posturako frogak. Zer egin behar izan zenuen bertan?

Lehenengo frogan, tinbalak jotzeari garrantzi gehiago eman zioten, eta perkusioari ez horrenbeste, postu hori tinbal jotzailearentzat zelako. Bigarrenean, berriz, alderantziz izan zen, postu berria perkusio jotzailearena zelako. Hortaz, nire prestaketan ez ziren gauzak asko aldatu. Erreperitorioa areagotu egin zen bigarren frogarako, nahiz eta harrigarria izan, izan ere pentsa daiteke bakarlariarena kategoriatan bat goragoko postua dela, baina ez, zehatzagoa da.

Arratsalde batean egin genituen frogak. Froga guztietan niri egokitu zitzaidan lehena izatea, zozketak hala erabakita. Bigarren errondara bost pertsona igaro ginen, eta horietatik lauk lortu genuen finalera igarotzea. Bertan, 40 minutuz jo behar izan genuen obra bat, eta oso gustura geratu nintzen nire jardunarekin. Hala ere, gutako inork ez zekien besteek zer moduz egiten zuten, eta beraz, nahiz eta esperantza banuen, ez nuen pentsatu nahi postua nirea izango zela.

«Gustav Mahler Gazte Orkestrarekin jo izanak, balio handia du beste orkestretako probetara aurkezten naizenerako», esan zenuen zuk elkarrizketa batean. Zenbaterainoko eragina izan du horrek?

Egia esan, alde batetik esperientzia hartu behar da kontutan. Europa mailako musikari onenekin aritzea izugarria izan zen, baita Bilboko, Donostiako nahiz beste leku gehiagoetako orkestrekin kolaboratzaile modura aritzea ere, batez ere, esperientzia pertsonala eskuratzeko, jotzeko garaian duzun trebeziarako. Bestetik, curriculum dago, frogak egiterakoan aukera handiagoa ematen dizun elementua. Esaterako, jende gehiegik izena emanaz gero, filtro bat pasatzea beharrezkoa izaten da, eta gutxik izaten dute lehen errondara igarotzeko aukera. Horretan ere balioko zuen, noski.

Eta orain, zein dira Euskadiko Orkestrarekin dituzun hitzorduak, entseguak eta kontzertuak?

Orain, orkestra bera eta bertako kideak oporrez gozatzen ari gara. Abuztuaren 2an itzuliko gara, Donostiako Mu-

sika Hamabostaldirako kontzertuetarako entseguekin. Gero, egutegi osoa ondo begiratu beharko nuke, baina urtero izaten diren kontzertuak ditugu, hau da, obra ezberdinez osatutako programa bera hilabeteetan behin Donostian, Bilbon, Iruñean eta Gasteizen jo behar dugu. Horrez gain, proiektu ezberdinak suertatzen dira urtean zehar: Angeluko Ravel jaialdian eskainiko dugu emanaldia, Alemanian nahiz Austrian zehar bira bat egingo dugu abenduan eta grabaketa ezberdinak ere egingo ditugu. Hortaz, orain burua Musika Hamabostaldian daukat jarrita, eta azken hilabeteetan beraiekin jotzen aritu naizenez, entseguetara joatea ez da zerbait berria izango, baina bai ilusio handiko zerbait. Gauzak ondo egiteko gogo handia dut, horregatik, hainbeste entzuten dudana presio hitza alde batera utzi nahi dut.

Europar zehar Gazte Orkestrarekin aritzeak miresmena sortu zuen zuregan, batez ere, bertako herrialdeetan kultura bizitzeko dagoen moduagatik. Ilusio hori ere izango duzu, ezta?

Alemanian edo Austrian jotzea oso berezia izango da. Nik hemen inguruan kultura bizitzeko dugun modua eza gutzen dut, baina erabat ezberdina da. Batetik, adinean aurkitzen dut alde, kanpoan edozein adineko jendea joaten delako kontzertuak entzuteran, eta gainera, arreta handiagoa eskaintzen diote egiten duzun lan horri, eta gehiago baloratzen zaituzte. Bestetik, orokorrean hartuta, hemen baino garatuagoa da bertakoen kultura maila, eta ikuspegi kritikoa bat izateko ahalmena eta gaitasuna handiagoa dute. Kontzertu guztian zehar, isiltasuna nagusitzen da, ez da ez tul hotsik ere entzuten, eta sortzen den atmosfera hori oso berezia da, hemen inguruan ez dut hain sakon bizitzeko aukera. Beste bizi-estilo bat da, haurrak direnetik irakatsi zaiena, eta bertara kon-

tzertu bat eskaintzera doan orkestra ezezaguna izan arren, auditorioa beti beteta egoten da.

Zein dira orkestrarako dituzun helburuak, bai pertsonalki baita musikalki ere?

Bizitza guztian bezala, beti izango dugu lanean jarraitzeko ilusio hori eta ikasten jarraitzeko behar hori. Batetik, eman dezakedan mailarik onena emateko asmoa dut, ikuspegi musikaletik begiraturik, ahalik eta mailarik altuena ematea, eta publikoa gozaraztea, emaitza ahalik eta onena izan dadin. Bestetik, Musikenen ikasten ari nintzenean, eredutzat nituen orkestrako perkusio jotzaileak, eta orain, ni neurtan nagoela ohartzean, nik ere etorkizuneko perkusio jotzaileentzako eredu izatea nahiko nuke.

Euskadiko Orkestra izena eraman arren, Estatuko nahiz Europako musikariak ere badabiltza. Hemen errazagoa da postua lortzea?

«Gauzak ondo egiteko gogo handia dut; horregatik, hainbeste entzuten dudana presio hitza alde batera utzi nahi dut»

Ez nuke esango hori hala denik. Lehen aipatutako plataforma horiek aukera ematen diete musikari askori beren herrialdetik harago musika klasikoa jotzen aritzeko, hau da, orkestra batean lanpostu finko bat lortu eta beraiekin gustuko duten lanean aritzeko. Nire kasuan, ez nuen inondik inora ere kanpoan aritu nahi, ez nengoen prest behintzat. Horregatik, zorionekoa naiz, hain aukera urria edukita, etxean aritzeko aukera izateagatik. Gaur egun, geroz eta euskaldun gehiago dira, musikan, formakuntza aurreratu bat dutenak, eta duela 35 urte, Euskadiko Orkestran oso gutxi baziren bertakoak, orain gehiago gara. Izan ere, beste herrialde askotan, betidanik jaso



dute formakuntza hori, eta beraz, musikalki garatuagoak daude.

Eta postua lortu izan ez bazenu, ez zenukeen kanpora jauzi egiteko aukerarik planteatuko?

Ez dut uste. Orain arte, Bilboko nahiz Euskadiko Orkestrarako egin ditut frogak soilik. Bestela, kolaborazioak egiten aritu izan naiz hemengo nahiz estatuko orkestra desberdinetan. Gainera, irakaskuntzan ere murgilduta nabilen, eta Euskadiko Orkestran ere kolaborazioak egingo nituzke. Beraz, musikaz gozatzen jarraitzeko aukerak ere izango nituen hemen, eta horiek mantendu nahiko nituzke, orkestra berri batera jauzia eman aurretik.

Lehenago ere, jo izan duzu Euskadiko Orkestrarekin, baina kolaboratzaile modura. Orain, zertan narbarituko duzu alde?

Aldea faktore ugarritan narbarituko dut. Urteak pasa ahala, nire esperientzia areagotzen joango da. Kolaboratzaile nintzenean, esaterako, kontzertu bakoitzean ikasten jarraitzen nuen, baina ez nuen orkestraren garapena



gertutik ezagutzen. Hortaz, normala izango da, musikako aspektu askotan, kolaboratzaile modura joango dena baino adituagoa izatea, egunero arituko naizelako. Hala ere, bere garaian

«Denboraz lasaiago ibiliko naiz orain, eta erritmoa lasaitu egingo zait, bai niretzako, baita gustuko ditudan gauzak egiteko ere»

nik jaso nituen bezala, laguntzaile modura joaten diren musikariei ere, nire aholkuak emango dizkiet. Oraindik ez dut presio hori nabaritzen, kolaboratzaile moduan izaten nuen bezala, ahal zenuen onena eman behar zenuelako orduan; baita orain ere, noski. **Duela hiru urte zenionez, orkestra batean postu finkoa duenak, posible du bizitza aurrera eramatea. Zu, orain, horrela sentituko zara.** Eta oraindik horrela dela iruditzen zait. Ezer finkorik ez nuenez, alde batetik bestera nabilen, talde desberdinekin kontzertuak eskaintzen, han

edota hemen lanean, txarangarekin... Hortaz, alde horretatik, bizitza pixka bat lasaiagoa izango dut, nire kabuz gauzak prestatzeko aukerarekin, eta noski, lanpostu honi lehentasuna eman beharko diot. Ondorioz, iruditzen zait ez dudala arazorik izango orkestrarekin bizitza aurrera eramateko.

Euskadiko Orkestraz harago, ba al duzu bestelako helmugarik?

Aipatu bezala, orkestrak markatuko ditu nire lehentasunak. Behin gehiago finkatzen naizenean, eta erosotasun bat lortzen dudanean, agian proiektu ezberdinak jorrazteko aukera planteatu dezaket: lankide batzuekin bildu eta kamara-orkestra bat sortzea, adibidez. Betiere, aitoritu beharra daukat, gure lana, zorionez, plazer bat dela. Azkenean, nagusiek aukeratzen dute orkestrako errepertorioa, eta bestelako obrak jotzea, zure esku dago. Proiektu txikiagoak ere egin ditzakezu, bizpahiru lagunekin batera bestelako kontzertuak eskaintzeko. Orain arte, gainera, kontserbatorioan ari

nintzen irakasten, eta hori ere alde batera utzi beharko dut.

Orkestrak jarri diezazukeen muga nagusiena, denbora izango da, bai lehen egiten zenituen gauzak egiteko eta lehen heltzen zinen lekue-tara heltzeko, ezta?

Noski baietz! Lanaldi oso bat denez, egun osoa horretan aritzea eskatuko dit postu honek. Bestela, ditudan afizioez gozatzeko denbora ere izango dut, askatasuna emango dit horretarako, nahiz eta ezingo dudan toki gehiagotan lanean aritu, lanpostu finkoa delako. Ondorioz, denboraz lasaiago ibiliko naiz orain, eta erritmoa lasaitu egingo zait, bai niretzako, baita gustuko ditudan gauzak egiteko ere.

«Bere garaian nik jaso nituen bezala, laguntzaile modura joaten diren musikariei ere, nire aholkuak emango dizkiet»

Europako Gazte Orkestrarako deitu zizutenean, honako hau esan zenuen: «Egunero entseatu beharra dago, kirola bezalakoxea da hau».

Argi dago ez ditugula zortzi ordu igaroko soilik entseguak egiten, izan ere, horiez gain sartu beharreko orduekin osatzen da lanaldi osoko jardunaldi hori. Horregatik, normalean oso ondo konpentsatuta dago, egunero landu beharrekoa den zerbaite da, baina programaren arabera, gauza konplexuago bat jotzea edo gutxiago jotzea eskatu dezake programa bakoitzak. Urte guttiko programazioa eskuartean dugunez, aurretik jakin dezakezu noiz duzun kontzertu konprometituago bat edo lasaiago bat. Hortaz, eginbeharrak denborarekin hartuta eta gauzak ondo prestatuta, emaitzak oso onak izan daitezke. Gauzak nola dauden ikusita, normala iruditzen zait egunero entseatu beharra, eta horrela izan beharko luke.



«ORKESTRA ASKO ALDATU DA, ETA ESKAKIZUN-MAILA ARE HANDIAGO DA ORAIN»

XABIER PEÑA

EUSKADIKO ORKESTRAKO PERKUSIO JOTZAILEA

Xabier Peñak 26 urte daramatza Euskadiko Orkestra Sinfonikoan, Jose Carrera tolosarra ordezkatu zuenetik; harro dago, herriko musikari bat gehituko delako bertara.

Donostiako Easo kaleko goi-mailako kontserbatorioan hasi zen perkusioa ikasten Xabier Peña Lorente (Tolosa, 1960), Jesus Mari Garmendiarekin batera. Hala ere, Tafallako festetan izan zuen lehen kontaktua, txistulariekin batera jotzen hasi zenean. Madrilen amaitu zituen ikasketak eta 1992az geroztik Euskadiko Orkestra Sinfoniko-kidea da.

26 urte Euskadiko Orkestra Sinfonikoan. Zer duzu esateko?

Asko eskatzen dizun bezala, asko ematen dizun lanbidea da. Oso pozik nago, gure herria ordezkatzeko duen orkestrako kide naizelako ere. Gainera, ohore bat da niretzat, kultur mailan erreferente den proiektuko kide izatea. Zure bizitza aurrera eramateko afizio bat da, bere argi-itzalekin. Esperientzia profesionalak garrantzi handia du musikarion kasuan, jotzen dugun obra berri bakoitza bestelako ikuspegi

batekin hartzen dugulako, musikalki geroz eta aberatsagoak garelako.

Perkusioko sekzioaren barruan, nolako izan da zure garapena?

Orkestra guztietan bezala, gurean ere kide bakoitzak bere plaza dauka. Ni, esaterako, *tutti* naiz, hau da, edozein perkusio instrumentu jo dezaket, eta horrela aritu naiz urte guztietan zehar. Bestetik, bakarlariak daude, ia instrumentu guztietan.

Eta nola aldatu da orkestra?

Ikustekoa da asko aldatu dela duela 36 urte sortu zenetik gaur arte. Bertako kideoi (baita zuzendariei ere) eskatzen zaigun eskakizun-maila ere geroz eta handiagoa da, eta teknikoki orkestrak duen maila hobea da. Jotzen ditugun obren errepertorioa, gainera, zabalagoa da. Lehen, bost edo sei egunen buruan egiten ziren entseguak, eta orain hiru egunetan begiratzen ditugu partiturak. Beraz,

oraindik garapen prozesu batean dagoela esango nuke.

Euskadiko Orkestra sortu zenean, harizko instrumentuak jotzen zituztenak, gehienbat, Poloniatik eta Errumaniatik etorri ziren; haizezkoak, berriz, Valentzia aldetik. Baziren nafar batzuk ere bertan. Orain, orkestraren %25a, gutxi gorabehera, Euskal Herrikoak gara, eta gezurra badirudi ere, asko gara. Gainera, orain belaunaldi aldaketa bat ere eman da, eta gazteak nagusitzen ari dira, kontserbatorioetatik prestatuago iristen direlako eta lehendik zeudenak ere erretiroa hartzen doazelako. Hortaz, jarraitzen dugun beteranoen esperientzia eta sartzaren diren musikari berrien jakinduria eta gogoia bateratzeari esker, binomio oso interesgarria sortzen da, emankorra eta estimulatzaileria, orkestra bezala hazteko eta garatzeko indarra ematen diguna. Asko entzuten da musikari gazteak ez daudela prest horrelako saltoak emateko, baina nire ustez, gogoz eta ilusio handiz aritzen dira lanean, eta hori azpimarratzekoa da.

93 musikariren artean, lau perkusio jotzaile, horietatik bi, herritarrak.

Nire ustez, harro egoteko modukoa da Igorren sarrera. Egia esan, egoera azpimarragarria da, kasualitatea baita bi tolosar Euskadiko Orkestrako sekzio berean elkarrekin aritzea. Igor gainera oso pertsona ona da, langilea eta serio egon behar duenean serio egoten daki horietakoa. Bestetik, badira beste orkestratan tolosar gehiago, eta beraz, errealitatea da, herrian badela perkusio-gorako harrobia, eta ona gainera.

Egia da konpetentzia geroz eta handiagoa dela Euskal Herrian?

Orkestra batean sartzeko bai behintzat. Gainera, ez dira bestelako oposizioak bezala, non plaza kopuru handiak eskaintzen dituzten; hemen bakarrarentzat egoten da tokia; beraz, oso zaila izaten da hori eskuratzea.

Kulturalki, nolako da jasotzen duzuen errekonozimendua?

Kanpora joaten zarenean, eta bertakoek orkestraren lana baloratzen dutenean, eta emanaldiekin hunkitzen direnean, emozio berezi bat sentitzen duzu. Atzetik lan handia egiten dela ederki asko dakite, eta horrela eskertzen dute joaten garen bakoitzean. Beharrezkoa da hori hemen ere jasotzea. Kultura ezinbestekoa da gizartearentzat, eta kultura zainduz gero, etorkizuna ziurtatuta izaten dugizarteak.



Kroazia, ezustea

Bidaia aholkularien arteko elkarrizketa batean...

Udara iritsi zaigu eta atsedean hartzeko gogo eta beharra dugula, leku interesgarri bat edo eta liburu bat irakurtzeko txoko lasai baten bila, ezta?

Ba hau dena Kroaziak eskaintzen digu!!!

Kroaziak liluratu egin ninduen, espe-ro ez nuelako batez ere eta bertako txoko gehienak ikusgarriak iruditu zitzaizkigulako baita ere, bere hiriez gain, eta batez ere bertako herrixka txikiak eta parke nazionalak eskaintzen diguten guztiagatik.

Kontatu kontatu, zer dugu ikusgarri bertan?

Kroaziako hiriburua Zagreb da, eta bertan has gitezke abiapuntu bezala, beherantz joan eta Dubrovnik bezalako Erdi Aroko hiriraino joan.

Tartean dauden uharteak ikusgarriak dira, Hvar adibidez, izpiliku zelaiak ustekabeen harrapatu ninduten. Egunez, bere freskura erakusten du, bere portuko kafetegietan, inguruko merkatuan baina gauez dana aldatzen da, kafetegi horiek jatetxe moderno bihurtuz eta gaueko magia berezi horrekin ilunduz.

Korkula ere beste uharte polit bat da, berdeenarikoa izan ere, bere ma-

hasti eta olibondoez josia. Kostaldetik hogeik kilometrora dago, Makarska eta Ploceren artean. Hegoalderago hondartza txiki asko daude, 200dik gorako kobazuloz josiak. Bertara joateko ferrya hartu daiteke Split hirian adibidez, baita Dubrovniken ere.

Kroaziatik harritu ninduen beste alde bat, bertako hirietan dagoen giroa da, bai Zadarren, bai Spliten eta baita Zagreben ere. Kaleetan zehar dagoen poztasuna eta giroa, gazte jende asko eta gauza desberdin eta berriak egiteko ilusioa.

Kroaziaren erdialdean Parke Nazionalak daude, ezagunenak Plitbitzekoak dira, mundialak dira, urjauzi eta lakuez beteak, leku magikoa batean bezala sartzen zara, ikusgarria da. Hauez gain, beste txikiago batzuk ere badaude, oso polita baita ere.

Honetara Skradin izeneko herri txiki batetik sartzen zara, sarrerak bertan erosi eta txalupa batean zeharkatzen duzu. Skradinsk izeneko lurjauzian bainatu zaitezke baita ere!

Toki bereziren bat lasai egoteko?

Dudarik Gabe Cavtat. Herri txiki-txikia da hau, Dubrovniketik hamar kilometrora dago eta mendi artean dago, kostaldeko herri txiki lasai bat

da, bere portutxo eta paseotxoarekin, bisitatu!

Irla ezagutzeko aukera oso ona aurotoa alokatuz herrialdea zeharkatzea da, zelaia zeharkatuz, kostan zehar ibiliz eta gehien atsegin duzuen kalatan geratuz bainutxo freskagarri bat eman eta berriz martxan joateko. Oso prestatuak daude horrela bidaiatzen duentzat eta bide guztietan zehar ostatu mota ezberdinak daude.

Eta janaria? Zer moduz jaten da Kroazian?

Italiar eta Greziar eragin handia dago, batez ere kostako zonaldean oliba olio asko erabiltzen da, baita arraia freskoa, itsaskiak eta bertako barazkiak ere. Barnealdean berriz eslabiar eragina dago.

Han taska moduko asko dago, konobozena dute eta orokorrean ez dira garestiak izaten.

Esan genezake Kroazia ezuste handia dela. Ezagutu!!



**MYRIAM GURRUTXAGA ETA
ENARA ETXEBERRIA**

Agenda

OSTIRALA UZTAILAK 13

ALEGIA

BIBALABIRJEN FESTAK

Mozorro Eguna. 12:30. Bertso-poteoa.
14:30. Bazkaria. **Ondoren.** Bazkaria eta poteoa jokoekin. **20:30.** Zahagiardoa.
23:00. Reggae: Kulto Kultibo + Dabu Selektah & Lagunak. **05:00.** Elektropapo elektroxaranga. **06:00.** Afterbirjen gaztetxean.

ALEGIAKO KARMEN JAIK

17:00. Haurren Santos Torneoaren areto futboleko finala eskolako patioan. **18:30.** Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupetan. **18:30.** Ordiziako erraldoi eta buruhandi, Loatzo musika eskolako trikitilari eta Giroarte dultzaina taldeekin kalejira Larraitz auzotik plazaraino. **19:00.** Elkarretaratzea plazan *Euskal preso eta iheslariak etxera* lelopean. **19:00.**

Txupinazoa Mari Tere Munduate eta Sagrario Aranbururen eskutik. Jarraian, txintxarriaren jaitsiera, jaien hasiera iragartzeko. **20:00.** Castellars de Vilafranca taldearen emanaldia plazan. **21:00.** Zahagiardoa zubian. **22:30.** Bertsolariak Elizpe zinema aretoan: Sustrai Colina, Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Beñat Iguaran. Gai-jartzailea: Mikel Artola. **00:00.** Skasti eta Bad Sound System taldeen kontzertuak.

ASTEASU

KONTZERTUA

23:00. Patxuko Nice, Iturri-Ondo jatetxean.

IRURA

UZTA GIRO

17:30. Jolasak.
19:00. Poteoa.
20:30. Afaría, plazan.
22:00. Andoni Ollokiegiren kantaldia.

TOLOSA

KONTZERTUA

22:30. Don Inorrezzen kontzertua, Plaza Berrian.



TXINTXARRIAK DANTZAN JARTZEKO EGUNAK

Karmen Eguna izango da astelehenean eta aurten hortaz aurreratura datoz Alegiako Karmen Jaik. Hauer gainera usadio den moduan Bibalabirjen Jaik ere gehitu behar zaizkio. Egitarau eta festa egun luzeak txintxarrientzat eta bisitarientzat. **I. GARCIA LANDA**

LARUNBATA UZTAILAK 14

ALEGIA

KARMEN JAIK

09:00. Giroarte taldeak alaituriko diana.
11:00-14:00. Haur parkea eskolako patioan.
12:00. Sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin, Irma Karrera eta Axier Unsain trikitilariak alaiturik. Sagardotegiak: Eguzkitza, Sarasola, Isastegi, Zalbide, Aburuza eta Zabala.
15:00. Alegiako III. Goitibehera jaitsiera Napar-Etxeberritik behera. **16:30.** Haur parkea eskolako patioan. **18:00.** Pilota partidak. Alegiako VIII. Pilota txapelketako finalak: kadeteak, Amiano-Uzkudun eta Zubeldia-Lizeaga; afizionatuak: Eneko Labaka-Aizpuru eta Zubiria-Garmendia. Ondoren, profesionalen partida: Artola-Urretabizkaia eta Arteaga-Erasun.
18:30. Apar festa. **21:00.** Zahagiardoa Larraitz auzoan.
22:45. Psycho-Clown taldearen emanaldia kaleetan zehar. **00:00.** DJ Josu Rodríguez.
BIBALABIRJEN FESTAK
20:30. Zahagiardoa.
23:00. Kontzertuak Antzarrak Perratzen + Koltxoi + Oztopo.

ASTEASU

SANTAMAÑAKO FESTAK

17:00. I. Orientazio Proba Herrikoia. Izen-ematea, (16:30-16:45).

IRURA

III. GAZTE EGUNA

09:30. Mendi irteera.
14:00. Gazteen bazkaria.
18:30. Poteoa.
21:00. Gazteen afaria.

TOLOSA

13. BONBERENEA FUTBOL

TXAPELKETA

10:00. Bonbernea, Senegal, Ibarako Gazte Asanblada, Gudari FT, Anoetako Gazte Asanblada, Mamut, Tolosako Gazte Asanblada eta Bonberenea Txaranga.

IGANDEA UZTAILAK 15

ALEGIA

KARMEN JAIK

09:00. Kalejira berezia, herriko txistulari ohiekin. **12:15.** Leiho eta balkoi ederrenaren sari banaketa. **12:30.** Txistularien alardea Txintxarri txiki abesbatza, Txintarri abesbatza eta Sutarri dantza taldearen



EHUNMILIEN EROMENAREN ASTEBURUA

1.600 boluntario, 1.253 korrikalari, 30 herri, bederatzizko edizio, bost eskualde, hiru lasterketa, bi parke natural, 24 anoia guzuz, 8.506 baliza islatzaile eta mila ikusle. Tolosaldean ere ikusi eta txalotuko dira korrikalariak. **PETER AYLWARD**

partaidetzarekin plazan. Tartean herriko txistulariei eskertza ekitaldia.

17:00. Umeentzat jokoak herriko gazteen eskutik, eskolako patioan. **18:30.** Herri kirolak Larraitz auzoko plazan: Harri-jasotzaileen XIII. Txintxarri Saria eta Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa. Parte hartzaileak: Aimar Irigolen, Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.a*, Mikel Lopetegui *Urra*, Imanol Albisu *Goikoetxe*, Xabier Peñagarikano *Peña* eta Xabat Olaizola. Idoia Etxeberria eta Karmele Gisasola harri-jasotzaileen saioa harri desberdinekin. **19:30.** Tio Teronen Semeak taldearen *Freshcool* emanaldia. **20:45.**

Zahagiardoa plazan. **21:45.** Sutarri dantza taldearen emanaldia plazan. Ondoren, dantzaldia Joxe Mendizabalen eskutik.

BIBALABIRJEN FESTAK

16:00. Mus txapelketa.
20:30. Zahagiardoa.
22:30. Herriko bertsolariak.

ASTEASU

SANTAMAÑAKO FESTAK

10:30. Santamañako XVIII. Kros Igoera.
16:30. Santamañako XXIII. Mus Txapelketa (15:45-16:15 izen-ematea).

TOLOSA

VESPA ETA SCOOTER TOPAKETA

10:00. Elkarretaratzea Tolosako Euskal

Herria plazan. **11:30.** Hamaiketako Amezketan. **14:30.** Bazkaria Tolosako Euskal Herri plazan. **18:00.** Andoni DJ eta Dudik.



ERAKUSKETAK

BUHO ETA MARAVILLAS

TOPIC. Sevillako bi txotxongilo taldeek, Buho eta Maravillas, 2007. urtean egin zuten bat, eta erakusketa honetan beraien 30 urteko ibilbidearen adierazgarriena ikusi ahal izango da.

HIRIAN HAZI

GKo GALLERY. Renaud Harrison-en, Art Fix (Kanada), *Hirian Hazilan* kolektiboa ikusgai dago. «Haurtzaroari buruzko hausnarketa egiteko gonbidapena egiten da, umeak eta hiria, umeak eta aiton-amonak eta haurtzaroko orotzapenak» oinarri hartuta.

ASTELEHENA UZTAILAK 16

ALEGIA

KARMEN JAIAK

09:00. Loatzoko trikitilarien diana.

09:00. Erretirodunek antolatutako mendi ibilaldia.

09:00. 3x3 Saskibaloia Txapelketa eskolako patioan. Kadete, infantil eta alebin mailak. **12:00.** Erretirodunentzat hamaiketako. **14:00.** Umeen bazkari herrikoia plazan. **15:00.** Haurrentzako Play-back saioa. Ondoren, zumba saioa.

16:30. *Sardina frexkue* haur antzerkia plazan.

18:00. Umeentzako txokolatea plazan.

18:30. Herritarren arteko toka txapelketa plazan 12 eta 15 urte bitartekoentzat eta ondoren 16 urtetik gorakoentzat.

19:30. Fan&go dantza taldeekin erromeria. **21:00.** Zahagiardoa plazan.

23:00. Fan&go taldearekin erromeria.

00:00. Txintxarriaren erreketarekin agurra egingo diete aurtengo jaiak.

TOLOSA

ODOLE MATEA

18:00. Hileroko odol-ateratzea izango da. kultur etxeko Topagunea gelan. Txandarako zenbakiak kultur etxeko sarreran uzten dira egunean bertan, 17:30ean.

ZINEMA

LA MUJER QUE SABÍA LEER

Igandea (19:30) eta Astelehena (20:30). Astelehenean ikuslearen eguna, jatorrizko bertsoan. Leidorren.



EZ beti EZ da



AMAIA AGIRRE ARRASTOA

*Udako gau giro epel
ta jaiak nonahi aukeran
etxera bidean, plazan,
txosnan edota tabernan
damutuko zaizun pausu
bakar bat ere ez eman
elkarbizitza serbitu
ta errespetutik edan (bis)
ahaztu ezinezko arau
batzuk ez daude soberan
ez ahaztu: EZ beti EZ da,
behin jaso edo ileran
beldurrik eragin gabe
etxerako itzuleran
ta utzi askatasuna
norbere gorputzarengan.*



Doinua

Larogeita hamar urte

Nire Tourra

Tourra abiatu berri den egun hauetan dira hiru urte nire tesiaren lasterketa hasi nuela.

Eta esan daiteke iritsi naizela lasterketaren hirugarren astera; datoren ikasturte honek erabakiko du ea Eliseoetan xanpaina edango dudana ala bidean geratu. Azken mendate bat igo eta sprinta, horixe geratzen da.

Denek esaten dizute gogorra dela,

Nik azken igoera Renon egingo dut, Nevadan; urtarrilean azken sprinterako itzultzeko. Eta esan nahi dizuet 'Ataria'-ri esker, astean behin edo, hango gauzen berri emango dizuedala irailetik aurrera

luzea, gorabeheratsua. Eta zuk, ezjakintasunak ematen duen *felizidade* horrekin, ez diezu sinesten. Gero, auskalo zenbat milagarren orria jiratu ostean, txakalaldiak harrapatzen zaitu.

Burua galdezka: Gauza izango ote naiz? Ondo ari ote naiz? Zentzurik ba al du honen? Nora noa? Hor konturatzen zara taldekideek eskaintzen dizuten gurpil hori izango dela laguntzarik onena. Eta etsitzea jarraitzea baino gogorragoa delako segitzen duzu, Parisera iristea beste helburu gabe.

Bueno bueno, hainbeste kexa... urtero ateratzen dituk eta 200 lagun Tourrean! Zer edo zer izango dik! Bai, badu: zu bezain jota dagoen jendea ezagutzea, zure gaia ondozaleek ba-

soa baino hobeto ezagutzea,... Eta, batez ere, zure burua proban jartzea mendate bakoitzaren aurrean. Nik azken igoera Renon egingo dut, Nevadan; urtarrilean azken sprinterako

itzultzeko. Eta esan nahi dizuet ATARIA-ri esker, astean behin edo, hango gauzen berri emango dizuedala irailetik aurrera: lasterketan ondo noala ikusten ditudan para-jeak kontatzeko, batzuetan; larri noanean gehiegi pisatzen didaten ur-potoak botatze-



HARITZ AZURMENDI
IRAKURLEA

ko, besteetan. (Ez da Usabiagaren kronika baina tira... ni ere ez naiz Landa edo Olaberria, zer nahi duzue!).

Bitartean, badakizue, heldu gogor eskulekuei, estutu hortzak eta zorte on zuen lasterketan!

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



nalla yātra!

Mimoz aukeratu genuen herrialdea, gozatu dugu presaketekin (ezer ez prestatzea ere antolaketa baita), miatu ditugu bertako erlijio saltsak, emakumeen bizimoduak eta animalia exotikoen bizilekuak. Parean tokatu zaizkigun (ia) guztiei kontatu diegu bagoazela: hilabete bat, herrialde arrotz bat eta bi lagun (eta bai, zaila dela halako bidelagunarekin gauzak gaizki ateratzea). (Ia) guztiek esan digute «Oh, ona! Gozatu!», «Bi neska bakarrik zoazte?», «Bizitza aldatuko dizuen bidaiak izango da», «Puf, ni ez dakit prest nagoen hara joateko», *bla-bla-bla*. Eta guk denei baietz, esaten dutena inportako balitzaigu bezala.

Baina, orain, abiatu aurreko ordu hauetan, hemen nago motxilari begira, zalantzan, kontraesanei lekua egin edo ez. Soinean eramanez edo bueltarako utzi. Baina lekua egin nahi ezta ere bertan daude, bidaiari ateratzea bera baita kontraesan.

Urte guztian eskura jartzen dizkiguten produktu guztien aztarna ekologikoa kritikatzeko aritu ondoren, bagoaz hegazkinean arrastoa utziz, urte guztiko estresak askatzeko beharrezkoa omen dugulakoan. Saiatuko gara

luxurik gabeko hoteletan lo egiten, bertako arrantzaleetatik jaten, bertakoekin tren bidaiak konpartitzen. Baina, behin hanka bat bertan jartzeko dugunean, nahi baino zuriago, europarrago eta aberatsago izango gara. Berdinetik berdinerara begiratu diegu, baina ea nork ulertarazten dien euren kulturaz aberastu nahi dugula gure barruko motxilatoa, ez gara beste ezertara etorri. Ea nork ulertarazten dien guk gure herritik jarraituko dugula borrokan mundua

aldatu dadin eta eurek ere duintasuna irabazi dezaten, baina ez gara limosnak eman zaleak. Eta haiek atzean utziz erreserba naturalak bisitatzera joango gara, jakitun gobernuek bizitokiak bidali dituela, tigreak ikustera doazena gehiago inportatu zaizkiolako.



MADDI SARASOLA
EIZMENDI
BETAURREKO
BERDEEKIN

Hala ere, bagoaz, badakigulako bizi garen lekuan (edo moduan) bizitza ere kontraesan zaigula eta horren jakitun izatea bera lorpen txiki bat behintzat badela. Baina ez uste gure kontua bakarrik denik, zuei ere lapatuko zaizkizue kontraesanak kruzeroetan, bigarren etxeetan, hondartzak ertzeko apartamentuetan, buffetetan edo mendi puntan. Uda on!

Baina ez uste gure kontua bakarrik denik, zuei ere lapatuko zaizkizue kontraesanak kruzeroetan, bigarren etxeetan, hondartzak ertzeko apartamentuetan, buffetetan edo mendi puntan. Uda on!

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro beroa baina ezegonkorra izango dugu. Egunaren lehen orduetan hodei-guneak izango dira eta baliteke zaparrada trumoietsuren bat botatzea. Goiz erdian eta eguerdian ordea, ostarte zabalak ireki eta giro eguzkitsua izango da. Gai-



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

nera hego-haizea ibiliko da eta bero egingo du, termometroak 29-30 gradutan kokatuko dira. Arratsaldean ordea, batetik iparmendebaldeko haizea sartu eta bestetik bero-hodeiak garatuko dira, non ekaitzetara joko duen eta batez ere

iluntze, gau partean ekaitz gogorren bat izango dugun, txingor eta guzti.

LARUNBATA

Berriz ere giro ezegonkorra izango dugu. Goiza eta eguerdia lasaiak eta eguzkitsuak izango dira, non berriz ere hego haizeari esker bero egingo duen, altuenak 30 graduren bueltan kokatuz. Arratsaldean berriz ere ordea, iparmendebaldeko haizea sartu, bero-hodeiak garatu eta beste behin ekaitzetara joko du. Ekaitzak arratsalde erditik aurrera sartuko dira eta ez dira ostiralean bezain ugariak eta indartsuak izango.

IGANDEA

Joera bera errepikatuko da, baina eguraldia ezegonkorrago egongo da. Goiza berriz ere lasaia izango da, non ostarte zabalak ikusiko ditugun eta giro lasaiaz gozatu ahalko dugun. Tenperaturak hori bai, behera egin eta 25-27 gradu bitartean kokatuko zaizkigu. Halere, bero egiten jarraituko du. Arratsaldean berriz ere bero-hodeiak garatu eta iluntze, gau partean ekaitzak izango ditugu, non berriz ere gogorrik izan daitezkeen, txingor eta guzti.

OSTIRALA
13



IGANDEA
15



LARUNBATA
14



ASTELEHENA
16



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburrak argitaratzeko deitu
943 65 56 95
zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus
helbidera edo pasa
ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak
iragarkilaburrak.eus
webgunean

FARMAZIAK



UZTAILAK 13, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea Aiestaran, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

UZTAILAK 14, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Morant Barber, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

UZTAILAK 15, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga Aranburu, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

UZTAILAK 16, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Bronte Posada, C.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

10:00-12:00. Zuzeneko berezia Alegiako Festetatik. Festetako hainbat protagonistekin hitz egingo dugu goizean zehar.

09:00. Hamaiketakoa. Villabona-Aiztondoko albisteak.

13:00. Entzuteko Jaiok musika saioa.

18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.

16:00. Entzuteko Jaiok.

17:00. Kokondo. Oskar Tenak gidatutako musika saioa.

18:00. Entzuteko Jaiok.

21:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultirrek gidatutako musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.

16:00. Entzuteko Jaiok.

17:00. Kantazgora musika saioa.

18:00. Entzuteko Jaiok.

ASTELEHENA

Irrati denboraldia amaitu zen atzokoan. Guartik aurrera euskal musika egun guztian zehar izango da. Ataria irratiko programazio berria irailaren 17an hasiko da.
Egun guztian zehar. Euskal musika.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

12:30. 1,2,3 Hemen da Miru.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

22:00. Ur eta lur.

22:30. Hurretik.


23:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.



Atarikideek
%25eko
deskontua

Zorion
agurrak

Etxekeoen
irribarreek
Atarian lekua
dutelako



Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95 • ataria@ataria.eus
edo San Esteban 20 Tolosako egoitzan

Hemen zure iragarkia joan daiteke

publi@ataria.eus

661 67 88 18

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

www.multioplicasgipuzkoa.com

%
des
kon
tua
30

**EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN**

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia
Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

*Gonbidatu zure ingurukoak gure dantzara.
Gonbidatu Atarikide egitera.*

Ez da harpidetza kanpaina soila. Ez da sostengu ekonomikoa bilatzeko saiakera. Edo ez behintzat hori bakarrik; egia da, Atarikide gehiago behar ditugula eta erronka berriei aurre egiteko baliabideen premia dugula; baina hori baino gehiago da kanpaina: TOLOSALDEKO ATARIA-k eskualdean duen oinarri soziala zabaltzeko urratsa eman nahi du.

Eta pauso hori egiten duzunean izango gara.



ataria.eus/harpidetza
943 65 56 95
San Esteban, 20. Tolosa.

